

401 zenbakia. 2000ko martxoaren 10a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara

Bidegorria

Trenbide zaharra ibilbide



Eguneko
euro batekin 1€

Clio bat zela finantzatu
jakin nahi?

RENAULT Clio

**MECA
BERGARA**

Amillaga 5
BERGARA
Tf. 943 76 40 68

ZEINTZUK DIRA GURE KOLOREAK?



Bide
larruak zait

Zeuk erabaki.





Hauteskunde kanpaina

Elena Laka / Abokatua

Jon; hamazortzi urte; selektibitatean nota altua ateratzen ez badu, ezingo du nahi duen karrera auke ratu.

Maite; hogeita hamabost urte; umea izan nahi du, baina lana dela eta eguneroko hamabi ordu pasatzen ditu etxetik kanpo.

Jose Mari; larogeita bi urte; andrea gaixorik jarri zitzaion eta duela hilabete biak erresidentziara joan ziren bizitzera.

Oihane; hogeitaz urte; datorren zapa-tuan, kalimotxo batzuk lagun, Mikelekin enroilatzen saiatuko da.

Iñaki; hogeita zazpi urte; gurasoen etxetik alde egin nahi du eta etxebizitza merke bat erosteko asmotan dabil.

Maria; berrogeita bi urte; hamabost urteko ezkontzak eragindako errutinari nola ihes egin da azkenaldi honetan kezkatzen duena.

Fernando; hirurogeita bat urte; beste urtebetez lan-kontratu berritzen badio, aurrejubilazioari eta, beraz, jubilazio-pentsioari, irabazitako beste urtebete izango du.

Itziar; hogeita hamazazpi urte; alabari ahoan ipini behar dioten aparatua epetan ordaintzerik badagoen galdetu behar du.

Julen; berrogeita zortzi urte; bihar emango diote erosi duen Audi berria.

"Pepita; hirurogeita hamabi urte; senarra zenarengatik

errosariotik bueltan

alarguntza-pentsioko

65.437 pezetarekin hila

nola bukatuko duen

pentsatzen dator.

Hauteskunde kanpainak

kezkatzen gaituela?"

Larraitz; hogeita hiru urte; ekainean dena aprobaten badu, udan Ingalaterrara joango da ingelesa ikastera.

Alberto; berrogeita hamar urte; badira lau hilabete lan-istripua izan zuela eta oraindik errehabilitaziora joaten segitzen du.

Mari Carmen; berrogeita hamabi urte; eskaparateetan ikusten duen udaberriko erropa jatzeko kilo batzuk kendu beharko dituela pentsatzen ari da.

Ander; hogeita hamabi urte; Realak igandean irabazten badu, afaria egingo du sozietatean.

Amaia; hogeita zortzi urte; oposizio hauek gaindituz gero, lana seguru izango du bizitza osorako.

Jose Luis; berrogeita hamazortzi urte; alaba bakar kutuna lanik ez duen kaskamotz batekin ibiltzen hasi da.

Pepita; hirurogeita hamabi urte; senarra zenarengatik errosariotik bueltan alarguntza-pentsioko 65.437 pezetarekin hila nola bukatuko duen pentsatzen dator.

Hauteskunde kanpainak kezkatzen gaituela?<

barruan



Jon Mendizabal

CDR taldeko txirrindularia

"Errepidean, terrenu guztietan nahiko erregularra naizela esango nuke"

23.



Mireia Gabilondo

Aktore eta gidoigilea

"30 aldiz esango dit senarrak nirekin moztu nahi duela 'Ez da hain erraza' obran"

26.



Iñigo Gallastegi

Gallastegi jostundegikoa

"Errealeko bazkidia naiz eta hamabostero joaten naiz Anoetara ekipua animatzera"

29.

Farmaziak

Eguakitza 10:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Zapatua 11:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Domeka 12:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Astelehena 13:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Martitzena 14:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguaztena 15:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguena 16:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Ogia

Domeka 12: Ogizun.

Eguraldia



Zapatua 11

Zeruan, ostarte zabalak nagusi. Temperatura apur bat jaitsi egingo da. Haizeak, berriz, iparraldetik joko du indar gutxirekin.

Ilargiaren aldiak



Ilgora: martxoak 13



Ilbete: martxoak 20




Ilbehera: martxoak 28



Ilberri: apirilak 4

Igeldoko meteorologi behatokia




Domeka 12


Zeru hodeitsua. Euri apur bat egin lezake. Temperaturek beherazko joera. Haizeak iparraldetik jarraituko du.

Eguzkia

Domeka, martxoak 12



Sortu: 07:33



Gorde: 19:21

Temperaturak eta euria Bergaran

Elosu: Joxean Azkarate
San Juan: Luis Mari Agirre

	Elosu			San Juan		
	max. °C	min. °C	euria l/m ²	max. °C	min. °C	euria l/m ²
Eguena 2	8	3	-	15	3	-
Eguakitza 3	13	5	-	19	1	-
Zapatua 4	8	5,5	2,1	12	3	0,5
Domeka 5	9,5	1,5	-	16	3	-
Astelehena 6	16	2,5	-	23	0	-
Martitzena 7	15,5	8,5	-	20	2	-
Eguaztena 8	17	8,5	-	23	2	-

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 3

3-15-21-27-41-42 (osag.35/itz.7)

Astelehena 6

16-21-28-29-34-40 (osag.15/itz.3)

Martitzena 7

1-10-18-21-23-37 (osag.30/itz.7)

Eguaztena 8

4-13-29-32-47-48 (osag.20/itz.2)

PRIMITIVA

Zapatua 4

7-10-16-26-38-39 (osag.1/itz.5)

Domeka 5 Saritzarra

16-21-23-34-36-41 (osag.42/itz.3)

ONCE

Eguakitza 3: 76.284 (186 seriea)

Domeka 5: 24.613 (023 seriea)

Astelehena 6: 73.358

Martitzena 7: 87.564

Eguaztena 8: 09.333

hau be badou?

VIH infekzioaren genea patentatu

Giza genoma ikertzen ari den Estatu Batuetako Human Genome Sciences Inc. biotekologia-entresak dioenez, VIH infekzioan giltza izan daitekeen genearen patentea egin du. Patentea egin duen enpresaren arabera, HIESaren aurkako borrokan ari diren enpresek badute genearen lizentzia lortzea. *Elhuyar*



Unai Belategi
14an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Asensio
10ean 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Amaia Iztueta
15ean 14 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak; batez ere, Pruden.



Markel Lete
10ean 16 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Unai Balanzategi
13an 2 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Leire.



Eneko Arizaga
13an 8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak; batez ere, Arantxa.



Naiara Toledo
13an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aritz Uzin
15ean 26 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ibai Linazisoro
10ean 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ainhoa Sasieta
15ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.




Jabi Elortza
15ean 36 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Raul Lucena
12an 19 urte.
Urte askotarako!
Maialen eta Jon Ander.

zorion agurrak



Eneko Etxeberria
12an urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak eta Ainhoa.



Maitane Mujika
12an 12 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta ahizpak.



Ainhoa Eguren
12an 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Markel Castelo
15ean 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Fernandez
11n 14 urte.
Urte askotarako!
Ander eta Oihana.



Andoni Cid
10ean 5 urte.
Urte askotarako!
Aitxa, ama eta Ainize.



Josu Mentxaka
14an 8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta bizilagunak.



Asier Franco
16an 10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Lorea.

ESKER ONA

Iñaki
Lazpiur Urkizu

Bergaran hil zen
2000ko martxoaren 1ean,
66 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Jabier
Odrizola Roman

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoak 12,
goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldezt aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Mikaela
Oianguren Kortabarria

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoak 12,
goizeko 11:00etan, Angiozarko
Mikel goiaingeruaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldezt aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Tomas
Eguren Azkorbebeitia

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoak 12,
goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldezt aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



Beñat Gonzalez
11n 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

*Hurrengo alean,
martxoaren 17a eta 23a
bitartekoen zorian agurrak
argitaratuko ditugu.*

URTEURRENA

Juli
Maortua Madariaga

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoak 12,
goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldezt aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



Maritxu Igartua
14an urtebetetzea.
Urte askotarako eta
segi horrela potxo-
la! Etxekoak.



Unai Unamuno
16an 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

jaiotakoak

Aste honetan ez dugu jaiotakoen
berririk jaso ez Bergaran eta ez
Antzuolan.

hildakoak

BERGARA

Iñaki Lazpiur Urkizu
Martxoak 1, 66 urte

Sebastian Garitano Askasibar
Martxoak 3, 93 urte

Amalia Garcia Santos
Martxoak 3, 90 urte



Jokin Gomez
10ean 5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Nerea Urzelai
10ean 12 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.

URTEURRENA

Concepcion
Roman Perez de Albeniz

Salustiano Odrizolaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, martxoak 12,
goizeko 11:30etan, Santa Marinan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldezt aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ANTZERKIA

► **"Edipo rey"** antzezlanaren bihar, zapatua, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan, **Teatro Corsario** taldearekin.

► **"Puzzle fantastikoa"** umeentzako txotxongiloak domekan, eguerdiko 12:30etan, Elorrioko Ateneoan.

► **"Un follon de testamento"** hilaren 18an, 22:00etan, Arrasateko Amaia antzokian.

MUSIKA

► **Jam.** Bihar, zapatua, **Frank T, El imperio eta DJ Zeta** (Hip-Hop), 22:00etan.

► **Mikel Telleria** bihar, zapatua, 22:00etan, Elgetako Gaztetxean.

► **Javier Sun y Los Desperados**, domekan, 21:30etan, Go-Jam aretoan.

► **Amaraun** taldea hilaren 17an, 23:00etan, Elorrioko Ateneoan.

► **Betagarri** taldea hilaren 18an, 23:00etan, Elgetako Gaztetxean.

ERAKUSKETAK

► **"Natura iruditan"** erakusketa Kultur Etxean, domekara arte. Oñatiko Natur Eskolak antolatuta.

KONTZERTUA

L7

Noiz: gaur, eguakitza, 22:00etan
Non: Jam aretoan
Sarrera: 1.500 PTA

Vigon eta Madrilen jo ondoren eta Barzelonara bidean, L7 taldeak kontzertua eskainiko du, gaur gauean, Jam aretoan. 1988. urtean taldea ezagutzera eman zenetik, lan benetan bikainak kaleratu ditu, eta joan zen urteko maiatzean Rolling Stone aldizkari ezaguneko irakurleek "Bricks are heavy" (1992) izenburuko lana hamar-kada horretako disko onenen artean aukeratu zuten. Kritikak rock eta punkaren artean kokatu dute L7 taldearen estiloa.

Zuzeneko emanaldietan ematen du bere onena Donita Sparks (kitarra eta ahotsa), Suzi Gardner (kitarra eta ahotsa) eta Dee Plakasek (bateria) osatutako hirukoteak (Gail Greenwood baxuak ez du azken bi diskoetan parte hartu).

Orain, "Slap-Happy" beraien azken lana promozionatzeko jiran ari dira, eta gaur

Jam aretora hurbiltzen direnek emakume hauek zuzenean erakusten duten indarra frogatzeko aukera izango dute. Kitarren indarrei berebiziko garrantzia emanez, Hellcopters eta Backyard Babies taldeak edota Courtney Lovena berarena besteko atrebentzia omen daukate taula gainean. Ez da gutxi. Donita Sparks kantari eta kitarra-jolearen hitzetan, "azken diskoaren grabaketa dibertigarria eta lasaigarria izan zen, eta teknikari baino, *feeling* deritzonari eman diogu lehentasuna abestiak konposatzeko. Entsaiu-aretoan grabazio mordoan egin ondoren, pozik geratu gara diskoan somatzen den giroarekin". L7 taldeak, besteak beste, John Waters eta Oliver Stone zinegileekin ere lan egin izan du. Talde teloneroa Pussycats izango da gaur.



Argazkian, L7 taldeko kideak. Gaur egun hirukotea osatzen dute.

► **Azur-en "Euskal txokolak"** argazki erakusketa Go-Jam aretoan.

► **Daniel Laskurainen margoak** Zarauzko Torre Luzea aretoan, apirilaren 9ra arte.

► **Pello Alberdiren margoak**

ak Iruñeko Molmar galerian (Curia, 18), apirilaren 19ra arte.

IKASTAROAK

► **Autoestima ikastaroa** martxoaren 23tik ekainaren 8ra, **Pepa Bojo** sexologa eta

sikologoaren eskutik. Arrasateko Udaleko Emakume Sailak antolatuta. Izen-ematea, doan. 943 79 09 00.

DEIAK

► **Anelkar** Antzuolako elkar-

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Barrenkalea 31

Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Tf. 943 76 20 02

BERGARA

**MUJIKA
Jantzidenda**

Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

tasun taldeak jakinarazi duenez, bailarako gobernu kanpoko erakundeak elkartu egin dira Mozanbikera laguntza bideratzeko. Dirulaguntza aurrezkitutza eta banketxeetan egin daiteke.

► **San Joxepe** antolatutako hitzaldia martitzenean, hilak 15, 19:30etan, Miguel Altuna institutu zaharreko aretoan: "La politica en Bergara durante los siglos XIX y XX", **Jose Maria Garmendia** Historia katedradunaren eskutik.

► **Udal Euskaltegiak** antolatuta, **Jon Villaren "Txanogorritxu Ertamerikan"** diapositiba emanaldia martitzenean, hilak 14, 19:00etan, euskaltegian.

► **EH. "Abstentzioa"** lemapean, manifestazioa gaur, eguakitzan, 19:30etan San Martin Plazan. Ondoren **herri afaria** izango da Artatsen. Txartelak Arranon.

► **Euskararen Kontseiluaren** bilera informetiboa astelehenean, hilak 13, 19:00etan Miguel Altuna institutu zaharreko aretoan.

► **Pazkuetako herri bazkaria** antolatu nahi duten taldeei dei egiten zaie datorren ostegunean, hilak 16, 19:00etan, Kartzela Zaharrean egingo den bileran parte hartzeko.

► **Elgetako Gaztetxearen** 4. urteurreneko ospakizunen barruan, gaur, hilak 10, **Juan**

Luis Zabalak "Galdutako arte" izenburuko hitzaldia emango du, 21:30etan, Gaztetxean bertan. Bestalde, hilaren 18an **bazkari herrikoia** izango da.

► **"Demokrazia Euskal Herriarentzat"** lemapean manifestazio nazionala bihar, zapatua, Baionan. Autobusa 15:30etan aterako da Frontoitik. Txartelak, Arranon eta Pol-Polen.

► **Emakume baserriar eta artisauen erakusketa** bihar, zapatua, goizez Arrasaten, Seber Altuben. Martitzenean, hilak 14, **Maite Barreñaren** eskutik "Euskal Herriko emakumeen erronkak" hitzaldia, 19:00etan, Monterronen.

OHARRAK

► **Udalak**, urtero legez, traktzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren erolda onartu du. Martxoaren 21era arte 2000. urteko eroldaren aurkako errekurtsioak eta erreklamazioak aurkezteko epea izango da. Era berean, zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte izango da zabalik. Ekainaren 1etik aurrera errekararekin eskatuko da.

KINTADAK

► **1936an jaiotako en eguna** maiatzaren 6an ospatzeko auzurten, baina datorren urtera arte atzeratzea erabaki da, 65. urteurrenarekin bat egiteko.

Z I N E A

KARTEDEGIA

BERGARA. Novedades
Las cenizas de Angela
Eguakitzan: 22:30.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Mandibulas
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

Buena Vista Social Club
Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema
Santitos
Eguakitzan: 19:00; 22:00.

La playa
Zapatua: 17:00; 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00; 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

ARRASATE. Amaia
Leccion de tango
Eguena, zine-kluba: 21:30.

EIBAR. Unzaga
La milla verde
Eguakitzan: 22:30.
Zapatua: 19:00, 22:30.
Domeka: 19:00, 22:30.
Astelehena: 19:00, 22:30.
Martitzena: 19:00, 22:30.
Eguaztena, ik. eguna: 19:00, 22:30.

EIBAR. Rialto
Tres reyes
Eguakitzan: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

OÑATI. Santana
Hoy empieza todo
Eguena, zine-kluba: 20:00.

ELORRIO. Arriola
Oriente es oriente
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Pinotxo (euskaraz)
Domeka: 17:00.

Leccion de tango
Eguena, zine-kluba: 20:00.

LAS CENIZAS DE ANGELA

Zuzendaria: Alan Parker.
Aktoreak: Emily Watson, Robert Carlyle, Joe Breen. ADIN GUZTIAK
Frank McCourt idazlearen best-sellerean oinarritutako filma egin du Alan Parker zuzendari ezagunak. Bere bizitza lehendabiziko bost urteak New Yorken igaro ondoren, bere gurasoen jaioterrira itzuliko da, eta Irlandan zorigaitzak besterik ez ditu jasanango, tartean bere bi anai-arreben heriotza. Poliki-poliki dirua aurreztu eta aurrerago Estatu Batuetara itzultzea da bere helburu bakarra.

MANDIBULAS

Zuzendaria: Steve Miner.
Aktoreak: Bill Pullman, ≥13 urte
Bridget Fonda, Brendan Gleeson.
Ikertzaile talde batek laku batean gertatutako heriotza bat eta bertan azaldutako hortz handi bat aztertu beharko ditu, eta *Jack Wells* (Pullman) eta *Hank Keough* (Brendan Gleeson) ofizialek, *Kelly Scott* (Bridget Fonda) paleontologoarekin batera argitu beharko dute lakuko misterioa...

BUENA VISTA SOCIAL CLUB

Zuzendaria: Wim Wenders.
ADIN GUZTIAK
Wenders zuzendariak eta Ry Cooder musikariak behin baino gehiagotan kolaboratu dute (*Paris, Texas; El final de la violencia*). Oraingoan, Kubako hainbat musikari mitiko elkartu dituzte, estudioko grabazioak zein zuzeneko emanaldiak grabatzeko.

BERRIGARRAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12



zumelaga

JATETXEA

54 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zure plana...



JAM ARETOA

MARTXOA

11: **Frank T. + El Imperio + DJ Zeta**

17: **S.A. + Eraso!**

18: **Martires del compas**

25: **Rock bitch**

APIRILA

08: **Grave digger + Ivon Savior**

15: **Doctor Deseo**



Frank T-ren lan berriaren aurkezpen kontzertua. Hip-hoparen erregeak Fabe (Paris), Kulmata, Sr Tcee, Shogun, Zeta, Kiko, Velazquez, Elphomega eta abarren laguntza izan du. Eta, gainera, Super Jeff Dominguezek egindako nahasketa-lan ikaragarria ere badu diskoak. Frank T-k bizi grina eta errebeldia ikerketa lanarekin elkartzen dituen musika mota dela hip-hopa erakutsi du disko honetan. Kontzertuan hip hoparen talde errebelazioa ere, El Imperio, gurekin izango da. Eta gaueko ordu txikietara arte DJ Zeta hip hop musika ipintzen.



MARTIRES DEL COMPAS

Hasiera batean flamenkoa da. Gero, munduko musika guztiaz baliatzen dira. Urak lurra besarkatzen duen bezalaxe, musika etnikoarekin, bossarekin eta abarrekin besarkatzen diren sevillana billyak, rocka eta rapa kantatzen dituzte. Ia intuitibokiak dira, eta demasekoa da beraiei entzutea. Lirika flamenkoaren iraultzaileak dira. Umorea eta maitasuna, sakontasuna eta egunerokotasuna, baina, batez ere, kaleko berbaldiak eta euren istorio eta pertsonaiak.



GO-JAM

MARTXOA

12: **Javier Sun + Los Desperados**



24: **The Peepshows + gonbidatutako artista**

26: **Ibon Serrano + David eta Maribel**

31: **Boikot**

APIRILA

01: **Naun + Purpura + Sr. No**




JATETXEA KAFETEGIA

Menua 1.000 PTA

Astelehenetik eguakitzera, 12:30-15:30



Santalaitz 5.
943 76 35 81.



12.792 lagunek izango dute domekan bozkatzeko aukera

Betiko legez, 18 mahai egongo dira bost hautesgunetan banatuta

Igandean, martxoak 12, Madrilgo Senatu eta Kongresurako hauteskundeak izango dira. Otsailaren 25ean eman zitzaion hasiera ofiziala hauteskunde kanpainari, eta bi astetan zehar alderdi politiko bakoitzak bere programa zein jarrerara azaldu du.

Honela, EHk, EAJk eta PSEk, hainbat ekitaldi egin dituzte herrian. EAk ez du Bergaran ekitaldirik egin.

Boto emateari dagokionez, Bergarako kasuan, 12.792 lagunek izango dute botoa emateko eskubidea eroldaren arabera. Orain lau urteko hauteskundeetako eroldarekin alderatuz, hiru pertsona gutxiagok.

Escolen kokalekuak ez du aldaketarik izango, eta, orotara, 18 mahai izango di-



Seminarioan, Matxiategin, Martokon, Osintxun eta Ibarran egongo dira mahaiak.

ARTXIBOA

ra bost egoitzatan banatuta: Seminarioan zortzi, Matxiategin lau, Martoko auzoko eskolan beste lau eta Iba-

rran bat. Banaketa honen arabera, errolatutako kopurutik 5.929 pertsonari dagokio Seminarioan boto

ematea, 3.232ri Matxiategin, 510i Osintxun, 2.170 lagunei Martokon eta 951ri, berri, Ibarran.

Alderdiek herrian antolatutako ekitaldiak

PSE-EE

Martxoaren 3an, "Casa del Pueblo"n, Elvira Kortajarenak, Gipuzkoako Kongresurako zerrendan bigarrenak, eta Alberto Buen, Senaturako zerrendaburuak mitina eskaini zuten. Bertan, Ezker Batuarekin lortutako akordioaz eta hauteskundeetan PPren aurretik gertatzeko duten aukera argiaz aritu ziren beste gauza batzuen artean.

EAJ

Martxoaren 6an, mitina izan zen Migel Altuna institutuan. Hizlari gisa, Joxe Joan Gonzalez Txabarri, Gipuzkoako Senaturako zerrendaburu Gipuzkoatik, eta Elena Etxegoien, Irungo Udaleko zinegotzi eta Senaturako zerrendako bigarrena egon ziren. Mitinean, beste gauza batzuen artean, alderdi abertzale sendo bat Madrilen egoteak duen garrantzia azpimarratu zen, baita garbi adierazi ere, ETAK euskal gizartea pakean uzteko garaia iritsi dela.

EH

"Burujaetza bidean, abstentzioa" lelopean, hainbat ekitaldi egin ditu EHk herrian: otsailaren 29an, alor sozioekonomikoa jorratzen duten herriko hainbat sektorek lan arlotik abstentziora jotzeko dituzten arrazoiak kalderatu zituzten. Martxoaren 2an, Angel Mari Elkanok, Mahai Nazionalako kide ohiak, hitzaldia eskaini zuen Migel Altuna institutuan EHk abstentziorako dituen arrazoiak azalduz. Martxoaren 6an, euskalgintzan nahiz irakaskuntzan lanean diharduten hainbat sektorek, abstentziorako deia egin zuten, Euskal Eskola Nazionalaren bidean indarrak hemen inbertitu behar direla gogoraziz. Gaur, hilak 10, manifestaldia egingo da 19:30etan.

Astelehenetik Ibargarai itxita ibilgailuentzat

Hiru hilabetetan kolektorearen hodiak sartuko dira eta kalea egokituko da

Astelehenean itxi egingo da ibilgailuentzat Ibargarai kaleko zati bat; Etxeparetik antzinako zezen plaza (gaur egun aparkamentua) doan zatia hain zuzen. Ixte honen arrazoia, ur zikinak bilduko dituen kolektorearen hodiak sartzeko egingo den lau metro zabal eta sakoneko zanga da. Kolektorearen lanak, berez, ez ziren hemendik hiruzpalau urtera arte hastekoak.

Hala ere, Ibargarai hiribidean oinezkoendako egingo diren hobekuntzak (espalo berriak, zoluen konponketa, loretoiak, zuhaitz landaketak...) hastear dira, eta hauek guztiak egin eta lau urtera kolektorearen hodiak sartzeko apurtu egin beharko liratekeenez, kolektorearen lanak aurreratu egin dira.

Etxeparetik zezen plazarainoko zati honetako lanak hilabete eta erdiz luzatuko dira eta bien bitartean ezinongo dute ibilgailuek bertatik igaro. Horrez gain, Zurradero kalea ere itxi egingo da astebetetz eta bertan garajea dutenek, goizeko zortziak baino lehenago atera beharko dute autoa eta iluntzeko zortziak ostean sartu.



Hauxe izango da astelehenean itxiko den Ibargarai errepide zatia.

1. FASEKO ORDEZKO BIDEAK

Ixte honegatik, bariantetik sartu eta herri erdialdera joan nahi duten ibilgailuek Arrizuritik igo beharko dute herriaren erdialdera joateko. Bariantera irteteko, Ibargarai kalea erabiltzen zutenek, orain Ramon Maria Lilitik jaitsi beharko dute bariantera heltzeko.

LANAK BI EPETAN

Ibargarai kolektorearen lanak bi zatitan banatu dira. Lehena, Etxeparetik antzinako zezen plazara doana, lehen esan bezala, eta bigarrena zezen plazatik bariantera irteteko bidegurutzerai-

no doana. Dena den, bigarren zatiko lanetan hasten direnean lehenengo faseko zatiak itxita jarraituko du,

hobekuntza lanekin hasteko. Bai lehenengo faseko lanek eta bai bigarrenekoek hilabete eta erdi inguru iraungo dute (bakoitzak).

2. FASEKO ORDEZKO BIDEAK


Bariantetik herriaren erdialdera joan nahi duten ibilgailuek, Arrizuriko aldapa itxita aurkituko dute. Horregatik, San Antoniorantz jo eta Espolotik heldu beharko dira herrigunera. Herritik irteten nahi duten ibilgailuek, Ibargarai eta Ramon Maria Lili kaleak itxita egongo direnez, Poligonorantz jo eta handik irteten beharko dute bariantera.

ONDORIOAK

PESA: Autobusak ez dira ez Santa Marina atzeko, ezta Poligonoko geltokietan geratuko. Autobusa hartzeko geltoki nagusira joan beharko da. Bigarren faseko lanak hastean, geltoki nagusia Torrekua pareko aparkalekura aldatuko da.

ZABORRA: Lehenengo fasean, Ibargarai bizilagunek zaborra zezen plaza zaharrera edota Urrats taberna parera atera beharko dute. Bigarren fasean, Urrats parera edo Torrekua.

APARKALEKUAK: Zezen plazako zein Ibargarai lekuak galdu egingo dira. Urrats tabernatik Etxeparerainoko bide zatiak irteerarik izango ez duenez, bidearen alde bietan aparkatu ahal izango da.



Etxanizi ez diote 3. gradua eman nahi

Jose Mari Etxanizek kartzelan 20 urte bete dituela eta dagoeneko kalean behar zuela salatu du prentsaurrean Bergarara Plataformak.

Kartzelan 20 urte darmatzan preso bakarretakoa da eta plataformako kideek adierazitakoaren arabera, "horrenbeste urte kartzelan egon eta oraindik lehenengo graduan dago, ez diote hirugarren gradua ematen". Zigorren hiru laurdenak beteak dituen arren, ezin da kartzelatik atera, hirugarren graduan egon beharko baiduke hori horrela izateko.

Hirugarren gradua ez emateko arrazoia, espetxean, Topasen orain, duen jarrrera desegokia da. Platafor-

mako ordezkarien hitzetan, "Etxanizek berarekin dauden preso komun eskubiak eta bereak aldarrikatu baino ez du egiten, eta horregatik dago gaizki ikusita". Gainera, sei hilabete darmatza Etxanizek Topasen, eta, jada, moduloz aldatu dute berarekin dauden preso komunei laguntzeagatik, eta jipioa ere jaso du.

Espetxean ezin daiteke 25 urte baino gehiago eman. Plataformakoak, kartzela zainketarako epailearekin bildu ziren otsailean eta honek esandakoagatik "lehenago ateratzea espero dugu, baina ez dugu ziurtasunik". Bitartean, Etxanizen kasua Auzitegi Konstituzionalera igorri dute.




Algodonera itxi egin liteke epe laburrean

Ixteko arrazoia, urtero izaten duen 400 milioitik gorako galera da. Tavex-eko zuzendaritzak aurrera eramango duen sustapen plan baten barruan kokatzen da itxiera, eta une honetan, ordezkari sindikalak ari dira plana aztertzen. Bi jarduera aurreikusten dira planean: Algodonera egiten den hari eta ehun produktioa geratzea, kompetitiboa ez delako, eta Elorregiko plantan egiten diren tindatze eta bukatze lanak indartzea 1.250 milioi inbertituz. San Antonioko lantegia ixteak, 70 pertsonako eszedentea ekarriko du. Hauei borondatezko baja eta jubilazioak eskainiko zaizkie. Inbertsioei aurre egiteko, San Antonioko lantegiko lurak saldu egingo dira.

Inauteriak Aranzadi ikastolan



Martxoaren 3an Inauteriak ospatu genituen Aranzadi ikastolan. Kolorez eta musikaz bete genituen kaleak eta plaza. Gure eskerrik beroenak parte hartu zenuten guraso guztioi eta zorionak irakasle eta ikasleei.



ARANZADI IKASTOLA

Berrigara

401 zenbakia.
2000ko martxoaren 10a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabeleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa: Alex Labaien, Mariipi Laskurain, Estepan Plazaola.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkoroberezar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Usua Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugaldé.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate, Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrogaroko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

ESKERRIK ASKO

Joan zen larunbatean, martxoak 4, Osintxun ospatu genuen "Santo Martirixen Feria" dela eta, eskutitz honen bidez, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu zuengandik jaso dugun laguntzagatik, izan ere, bestela ezin izango genukeen helburu hau gauzatu.

Besteak beste: Osintxuko baserritarrei, talogileei, zogozileei, Osintxuko tabernariei, Aitz-pe elkarteari, Osintxuko lan taldeari, Atxuriondo enbaleak-i, Soraluze S.Koop-i., Servimasari, Jardun trikiti eskolari, Moises Aspiazu trikiti dantz eskolari, Bergarako Udalari, Bergarako Rezola harategiari, Eibarko Jabier Larrañaga harategiari, lokalen jabeei, Arrasateko AEDri, eta nola ez, bertara hurbildu zineten guztioi.

*Txurumilo Osintxuko
Herri Batzordea,
kultur komisioa.*

OSINTXUKO FERIXIA

Eguraldixa triste samarra izan zan arren, giro ederra sortu zan. Berez, Osintxuko jaixak abuztuan ospatzen dia eta Emerterio eta Zeledonio, auzoko santuak, martxoan. Aurtenguan, gazte multzo bat elkartu eta Osintxun ferixia antolatzia pentsauaz bat ein dabe... zeañtitz ez!

Bertan, aspaldiko trastiak txukuntasunez eta elegantziaz erakutsi zittuzten. Batek baino gehixauk esandakua da gure gaziak juergarako bakarrik balio dabela, baina oinurengokua ikusitta ederki erakutsi dabe edozertarako prest dabela. Zorionak!

Baserritarrek be ederki asko plazaratu zittuzten beren produktuak: gozoak, tartak, torradak, kanutiluak... laister asko saldu ziran danak. "Olalde" baserriko lau ahizpak Miren, Irene, Niebes eta Joxepa maistrak izan ziren talo einian; "Laspuurreko" Begoña, berriz, han ibili zan garbosa-garbosa zerbitzen. Guztiei zorionik beroenak. Holakoik ez da sekula Osintxun ikusi; benetan, primerako profesionalak dia.

Datorren urtera arte.

Mari Kontxi Garaiondo

ERREALITATEAN DESBERDINAK

Eskubideen berdintasuna lortu dugu, baina hau erdizkako egia baino ez da. Izan ere, berdintasun hori benetakoa baino formalata baita, oraindik ere; berdintasunari buruzko diskurtsoen atzean, injustizia eta desberdintasun egoerak ezkututzen dira: esate baterako, emakumezkoen langabezia gizonetzkoena



halako bi da. Hala ere, oraindik ere ukatu egiten zaie emakumei industria alorreko lanpostuetarako bidea: Aldi berean, egingdako lan kontratoen %90, behin-behinekoak eta aldi baterakoak izan ziren. Hori gutxi balitz, gizonetzkoen soldatak emakumezkoenak baino %25-30 altuagoak dira, aitzakia bezala kategorija berdintasuna jarzten delarik.

Emakumeok gara, oraindik ere, jornada bikoitza gure gain hartzen dugunok: laborala eta etxekoa. Pobreziak eta gizarte bazterkeriak neurri handiagoan eragiten diete emakumei: hirutik bi emakumeak dira.

Egoera hauek guztiak kontuan hartuta, emakumeok zain eta erne egoten jarraitu beharra daukagu. Zoritxarrez, oraindik martxoaren 8 asko ospatu beharko ditugu, bi helbururekin: batetik, geure burua zorientzeko urtetik urtera eskuratzen ari garen lorpenengatik. Eta, bestetik, gizarte osoari gogorazteko oraindik lortzeke daukaguna. Ez dugu nahi kontzientziak isilarazteko balio duen ospakizunik, baizik eta ahotsa altxatu eta geureak diren eta zor zaizkigun eskubideak aldarrikatzeko. Horrela, martxoaren 8ak, mereziko luke.

Berrogaroko ESK

tira biraka usoa mendikute



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Zer pentsatzen jatsu Euskal Herriko Unibertsitateko errektore berriak euskaraz ez jakitzia?



Juan Juaristi

Oso gaizki. Errektoriak euskaraz jakin biharko leuke, eta ez lehenengo postua lortu eta, gero, euskaraz ikasiko dabela esan.



Izaskun Iturbe

Gaizki. Euskal Herriko Unibertsitateko errektoria dalako. Gaiñera, nik nahixago neban Bergarakua aukeratu izan balebe.



Aitor Larreategi

Pentsatzen dot ikasi egin biharko leukela. Eta ez badau ikasten, kargutik kendu, eta euskaraz dakixen bat jarri biharko leukie.



Loli Alvarez

Bere kargurako euskaraz jakitzia biharrezkua baldin bada, jakin biharko leuke, baiña bestela, ez jat pentsatzen ikasi biharko leukenik.



Ismael Gonzalez

Oso gaizki. Gaiñera, euskaraz ez dakixen lehenengo errektoria ei da, eta hori atzerapausu bat da irakaskuntzan.



Isabel Vila

Zentzugabekerixa bat pentsatzen jat. Hemen euskara bultzatu eta indartu bihar baldin bada, Unibertsitate-tik hasi biharko litzake.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.

MOTORREK EGITEN DUTEN ZARATA ORAINGOAN ERE

Pilar Oiarzabalek mezu laga zigun erantzungailuan zapatuan. Joan zen astean, sail honetan, Jose Perezek azaldutako kexarekin bere adostasun osoa azaldu nahi du Pilarrek. Jose Perez kezu zen hainbat motorrek herrian eta edozein ordutan ateratzen dituzten zaratez, eta Pilarrek ere galdetu nahi du ea nora begira dauden horrelako gauzak arautu behar dituztenak, berari ere oso desatsegina gertatzen zaio eta zenbait motordunen portaera. Pilar haserre samar dago motorren kontuari konponbiderik topatzen ez zaiolako, eta dago-kion erakundeari horri erregulatzeko neurriak hartzea eskatu nahi dio. Zaraten arazoa lehenbailehen konpondu beharra dagoela uste du Pilar Oiarzabalek.

Goienkaria



Astlehenean, Goienkaria berezian:

- Hauteskundeetako emaitza guztiak
- Eskualdeko eta herriz herriko datuak
- Informazio zehatz eta osatuena

Ohiko tokietan DOAN: kiosko, okindegi, taberna... Astelehen goizean, eskatu eta eruan.

adituen esanetan

Elikagarri nagusiak

Dietaren bidez bi motatako elikagarriak hartzen ditugu: makronutrienteak eta mikronutrienteak deritzonak, hain zuzen. Lehendabizikoak (karbohidratoak, lipidoak, proteinak eta ura, esate baterako), gramotan neurtzen baditugu, kantitate handian hartu behar ditugu eta mikronutrienteak (bitaminak eta mineralak, adibidez), berriz, ez ditugu horren kantitate handian hartu behar.

Karbohidratoen (pastak, ogia, zerealak...) funtzio nagusia energia ematea da, gure gorputzaren erregai nagusiak dira, etengabe erabiltzen dugun erregaia hain zuzen, eta erreserbak (gibela, muskuluak) txikiak direnez, dietaren elikagarri printzipalenak izan behar dira (karbohidrato konplexuak, noski). Lipidoak ere (koipeak eta hauen deribatuak) energetikoak dira, baina erreserbarako energia, energia behar dugunerako gorde ditzakegu gure "biltegia"n. Karbohidrato gramo batek lau kilokaloria ematen baditu, lipido gramo bakoitzeko bederatzi kilokaloria lortzen dira. Horrez gain, lipidoak oso arinak dira (ura baino dentsitate txikiagoa dute). Beraz, energia asko pisu gutxitan kontzentratzen da: animalia batentzat erreserba energetiko aproposena. Horregatik, erreserba gehiago daukagu eta, hori dela eta, die-



BITTOR RODRIGUEZ

Elikagaien teknologoa

"Karbohidratoen funtzio nagusia energia ematea da, gure gorputzaren erregai nagusiak dira, etengabe erabiltzen dugun erregaia"

egokia baita gorputzaren temperatura egonkor mantentzeko orduan. Termoreguladorerik onena dela esan genezake.

tan ez dugu horrenbeste karbohidrato hartu behar.

Bestalde, proteinekin (haragia, arraina, arrautzak...) egitura funtzioa dute, ehunen osagai bezala, gorputza eraikitzen duten "adreiluak" dira. Gure gorputzeko proteina asko "birziklatu" egiten dira; hori dela eta, dietan gutxien behar ditugun makronutrienteak dira. Azkenik, urak ere nolabaiteko "egitura" funtzioa dauka (gogoratu gure gorputzaren %65-70 ura dela) eta duen erregulazio funtzioa ere nabarmentzekoa da, oso



Adituen ustez, gehienok, fruta gehiago jan beharko genuke. ARTXIBOA

bergarako errota

OSIÑETA ERROTA

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak honela dio 1897an:

"Angiozarko parroko Jose Juan Kortazarrekoa jaunak, Dionisio Ochoa jaunaren testamentu-egikaritzearen izenean, Angiozarko deritzon erreteko urak berriro ere erabiltzen basteo baimena eskatzen du. Urok, lehen, Osineta; geroago, Aldacherre, eta, gaur egun, Aldaz Barrey izena ematen zaion irin-errotarako izango dira.

Horretarako, presa zaharra berregingo da, gebienez ere metro bat eta berrogei zentrimetroko altura emanda, eta baren eskumaldetik aterako da ura desbideratzeko kanala, lehen zegoenaren berdina.

Kanalak segundoko 120 litro ur jasoko ditu, eta, bost metroko urjauzi baten bidez, errotarako indarra sortuko. Kanal horrek Bolintxo izeneko errotan erabili izan diren urak ere jasoko ditu.

Desbideratutako ura 22 metroko luzera duen hustubide batetik itzuliko da atzera ere errekarara.

Hau guztia ezagutzera ematen dut..."

1898ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean baimena ematen zaio.

1955etik 1957ra besterik ez zuen alta hartu irin-errota publiko honek, Ochoa y Cia.ren izenean.

Errota hau zazpi baserriena zen. Geroago, Eugenio Ochoarena izan zen (1966an hila, 75 urte zituela). Harrezkero, beste bazkideek Beko-errotako errotaren partaide izatera pasatu ziren.

1947an laga zion irina egiteari, eta gaur egun zeharo hondatuta dago.

KOKAPENA: Bolintxoko errota-tik 100 metrora, errekan behera.

Antxon Agirre Sorondo



Otsailaren 6a, bikien eguna

Kasualitateak izaten dira batzuetan, eta honakoa ez zaigu nolana-hikoa iruditu. Hiru urtez jarraian, 1998, 1999 eta 2000. urteetako otsailaren 6an, hain zuzen, herriko hiru emakumek bikiak izan dituzte. 1998. urteko otsailaren 6an, **Maria Angeles Padillak Miren eta Joseba** izan zituen; 1999.ean, **Corpus Paredesek Jon eta Xabier**, otsailaren 6an hauek ere, eta 2000ko otsailaren 6an, orain dela bi hilabete, **Puri Diazek Jone eta Danel** izeneko bi haur eder izan zituen. Kasualitate handia...

"Memin" gogoan

Jende ugari bildu zen **Iñigo Martinez, "Memin"** gazteari joan zen eguenean egindako omenaldian. Omenaldi ekitaldia Pol-Pol tabernan izan zen. Bertan, **txalaparta** eta "Memin"i buruzko **bideo** batez gain, bere hainbat lagunek **kontzertua** eskaini zuten. Omenaldi barruan, **Irukurutzetara igoera** ere izan zen larunbat goizean.



AEK-ko saria Bergaran

Rosario Garitano izan da AEK-k Euskal Herria osoan zozketatzen duen **urte osorako soldataren irabazlea**: 150.000 PTA bilero. Zerbaki saritua, 71.041, Bergaran bertan saldu zen, eta saritua ere bertakoa da. Zorionak!

Arrakasta handia Osintxuko azokak

Santu Martirixen eguna ospatzeko Osintxun antolatutako baserriko lanabes zein produktuen azokak arrakasta handia izan zuen joan zen larunbatean. Jende ugari bildu zen Osintxuko bertako baserrietatik lortutako lan tresnak ikustera, eta bertako lurretan hazitako produktuak erostera.





Aratuste koloretsuak

Zelako mozarroak izan ditugun aurten ere! Batzuek behintzat irudimen handia dutela ezin ukatu. Eguakitzean eskoletako haurrak hor izan genituen euren desfiletxoa egiten. Batzuk mexikarrez, besteak indioz, Lantzeko aratusteetan zeudela uste zuenik ere bazegoen... Eta larunbat gauean! Horiek beste kontu batzuk dira.

17. orrialdean jarraitzen du.



kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarría, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 54. zenbakia. 2000ko martxoaren 10a.

Arduradun berriak Gaztetxean

Urtebetez izango dute Gaztetxeko ardura aurtengo kintoek

Ótsaileko lehenengo astean asanblada egin zen Gaztetxean arduradun berriak aukeratzeko. Eta ordutik aurren 18 urte betetzen dituzten kintoak dira arduradunak. Urtebetez izango dute kargu hori, baina urtea bukatu aurretik, Gaztetxe barik geldituko direla diote hantxe egin nahi diren lanak direla eta.

Horixe da duten kezka nagusia. "Udalak jaiak hasi baino pare bat aste lehenago erai-kin hau berritzeko lanak hasi nahi dituelako, agian jaietan ez da Gaztetxerik egongo. Horren aurrean, beste lokalak bat lagatzeko eskatuko diogu". Hamar lagun hauek (Haritz Alonso, Egoitz Jauregi, Xabi Vargas, Alberto Caceres, Jon Iturbe, Ieltxu Mendizabal, Eneko Zabaleta, Jabi Peñalba eta Josu Seguro), dena dela, gogoz hartu dute Gaztetxearen ardura eta dagoeneko hasi dira ekintzak antolatzen. Joan zen zapatuan esaterako, karnabaletako afaria egin zuten. "Hirurogei lagun etorri ziren afaltzera eta mozorrorik onenari sari bat eman genion. Uraitz Garciak irabazi zuen. Horrez gain, Udalak Aiherrera joateko autobusa antolatzeko ardura hartuko dugun eskatu digu. Asmoa jende gaztea bertara joan dadin animatzea da eta geu arduratuko gara kartelak ipini eta horrelakoetaz. Bestalde, hilabete honetan kontzertu bat egin nahiko genuke. Oraindik ez dugu dena zehaztu, baina hasi gara dagoeneko taldeei deitzen".

Guztiak mutilak izatearen arrazoia kasualitatea ez dela diote. "Gure adineko neskei ere esan genien Gaztetxeko arduradun izateko gurekin batera, baina



Aurtengo kintoek osatzen dute Gaztetxeko arduradun talde berria.

ez zuen inork onartu. Ez dira animatu, beraz denak mutilak gara".

GAZTETXEAREN BEHARRAK

"Lokala bera ondo dago, baina musika ekipoa nahiko eskasa da. Musika ez da ondo entzuten; ekipo berria lortu nahi dugu. Agian laguntza eskatuko diogu udalari. Telebista ere gaizki dabil, baina oraingoz hori ez da lehentasunezkoa, musika ekipoa da beharrezkoa".

Gaztetxean berogailurik ez dagoela ez da gauza berria eta horretaz ere kexu

dira arduradun berriak; "neguan kalean baino hotz gehiago egiten du Gaztetxean, horregatik diogu berogailuak jartzea ez litzatekeela batere gaizki egongo".

Horiek denak aztertzeke, agian, asanblada berriz ere martxan jarriko dutela uste dute arduradunek, baina oraindik ez dute ezer erabaki "urtebetez bakarrik egongo garenez, ez dugu uste erretzeko astia izango dugunik". Asteazkenean zehar 17:00etatik gaueko 21:00etara egoten da zabalik eta asteburuetan 17:00etatik aurrera. ■

■ ■ ■
Jaietan ez da Gaztetxerik egongo eta beste lokal bat eskatuko diogu udalari
■ ■ ■

Elkartasun erakusketa, arrakastatsua

Anerlkar elkarteak oso positibotzat jo du Hirugarren Munduari buruz antolatutako erakusketa. Ia 400 lagun izan dira Udaletxeko areto nagusian erakusketa ikusten eta gainera, Herri Ikastetxeko haurrek ere parte hartze zuzena izan dute. Botikak batzea ere oso ondo irten dela esan digute elkarteko kideek.




E

uren lehenengo ekintza izan da eta oso ondo atera dela diote. Hirugarren Munduari buruzko erakusketa aktiboa jarri zuten udaletxean eta

eskolatik joan ziren 135 neska-mutikoez gain, beste 212 lagun ere izan ziren erakusketan. "Jendearengandik oso harrera ona izan du eta positiboa izan da oso. Orain arte, jaietan egiten dugun elkartasun jaia baino ez dugu antolatu eta ekintza honek izan duen arrakasta ikusita, lanean segitzera animatuta gaude".

Erakusketan bederatzi begiralek hartu zuten parte. Izan ere, erakusketa aktiboa zen, hau da, Hirugarren Munduko hainbat herrialdetan duten bizimodua gertutik ezagutzeko, hango jantziak ipini, bertako sukaldeko tresnak erabili, musika tresnak jo eta antzekoak egiteko aukera izan zuten eta horretarako begiraleen laguntza izan zuten. "Erakusketan parte hartu duten guztiei eman nahi dizkiegu eskerrak. Begiraleei, irakasleei, ikustera joan direnei eta baita antolakuntzan parte hartu duten 42 lagunei ere. Horrelako erantzuna izanik, gustura aritzen zara lanean".

Erakusketan bertan, Debagoieneko Gobernu Kanpoko Erakundeek kudeatzen duten Bidezko Merkataritza dendako produktuak ere jarri zituzten salgai. Denda hau Arrasateko Eroskin dago. Erakusketan, 40.000 PTAko salmentak egin ziren "erantzuna ikusita berriz ere herrira ekartzeko asmoa daukagu".



Ia 400 lagun izan dira erakusketa ikusten.

Umeek erakusketan parte hartzeaz gain, elkartasuna adierazteko asmoz, eskolarako materiala laga zieten antolakuntzako "kuadernoak, arkatzak eta antzeko gauzak ekarri zituzten".

Erakusketa Misiones Diocesanas elkartearen materialarekin antolatu zuten. Euskal Herriko 20 bat herritan egon den erakusketa da. Baina material horretaz gain, "antzuolar asko egon da Hirugarren Munduko herrialdeetakoren batean bisitan eta handik ekarritako gauza asko daude gure herrian. Horiek denak aprobetxatu genituen erakusketan jartzeko eta oso erantzun ona izan genuen jendearen aldetik. Askok izan ziren euren gauza partikularrak ekarri zituztenak". Udalak ere lagundu du Anelkarren eki-


men honetan eta 50.000 PTAko dirulaguntza eman die.

BOTIKA BATZEA


Erakusketarekin batera Costa de Marfiera bidaltzeko botikak batu ziren. Herriko ikastetxean eta farmazian, guztira, 565 botika jaso dira.

MOZANBIKERA LAGUNTZA

Anelkarrek Euskadiko Kutxan eta Kutxan dituen kontu korranteetan Mozanbikera bidaltzeko dirua jasoko du, bailarako beste Gobernu Kanpoko Erakundeekin batera. Lagundu nahi duzuen guztiok bertatik pasatu besterik ez duzue. Dirua Intermon elkartearen bitartez bideratuko da Mozanbikera.



"Mozanbikerako diru bilketa egingo du Anelkarrek Kutxan eta Euskadiko Kutxan"



LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI

Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

Dantzaldi jendetsua Inauterietan

Inauteri arrakastatsuak izan genituen Antzuolan. Eguraldia bikaina izan zen domekan eta gainera jende askok hartu zuen parte dantzaldian. Kalez kale ibili ondoren herriko plazan dantza talde bakoitzak bere tarte eskaini zuen, txikienetatik hasi eta helduenetaraino.

Jaia, ordea, bezperan hasi zen gaztetxean. Inauteri afaria egin zuten eta hau ere arrakastatsua izan zen.



Uraitz Garciak (ezkerrean) irabazi zuen mozorro lehiaketa.



Gaztetxean 60 lagun egon zen afaltzen.



Txikienek kantuan eta dantzan egin zuten.



Euskal presoak ere gogoan izan zituzten sorgin dantzan.

Iaz baino bikote gehiago animatu zen nesken taldean.

Hartza eta tximinoa ez ziren falta izan domekan plazan.




KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatua eta barnizaketa •



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Ibilaldi neurtua

Eibarren izango da aurtengo eskola arteko ibilaldi neurtua. Hara joango dira Arrolarekin batera herriko neska-mutikoak, martxoaren 12an. Unben elkartuko dira bailarako neska-mutiko guztiak. Parte hartzaile guztiek diploma bana jasoko dute eta hamarretakoa ere banatuko da.



MOTZIAN

GURASOENDAKO IKASTAROA

"Sehaska kantuak, ume kantuak eta jolasak" izeneko ikastaroa antolatu du Udalak. Ikastaroa hitzaldirekin osatuko da. Lehenengo hitzaldia (martxoaren 21), "Kantuaren eta jolasaren garrantzia umearen garapen afektiboan" Miriam Azpirik eskainiko du. Bigarrena martxoaren 23an izango da: Lorea Bilbaok "Kantuaren eta jolasaren garrantzia eskararen transmisioan" izeneko saioa eskainiko du. Bi hitzaldiak udaletxean izango dira, 18:30etan.

DANTZA IKASTAROA

Pasodoble, tango eta merenge dantzen ikastaroa izango da zapatuetan. Informazioa, Udaletxean edo liburutegian.

ANJE DUHALDEREN KONTZERTUA

Martxoaren 24an, eguakitzean, kontzertua eskainiko du Anje Duhaldek Zine aretoan 22:00etan.

IPUIN SAIOA LIBURUTEGIAN

Zapatuan, hilak 18, ipuin saioa egongo da udal liburutegian. Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria arituko da han eta Euskaldunon Egunkariako Mattin marrazkilaria izango du lagun. 17:00etan.

GOIENKARIA KALEAN

Martxoaren 13an, astelehenean, argitaratuko da Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen lehen produktua: Goienkaria berezia. Bertan, hauteskondeei buruzko informazio zehatz eta osatua aurkituko duzu. Egunkari formatoko lau orrialdekoan bailara osoko eta herriz herriko datuak jasoko dira. Doan eskuratu ahal izango duzue nahi duzuen guztiok. Besteak beste, kiosko, okindegi, taberna eta hainbat lantokitako jate-txetean aurkituko duzue. Udalean ere izango da eskuragai.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Gipuzkoako eskolarteko gimnasia erritmiko txapelketan herriko lau neska aritu ziren Arrasaten. Alebinetan Maddalen Legorburu aritu zen. Esku libreekin lehia-tu zen eta boskarren gelditu zen. Infaniletan Uxue Arregi hamargarren izan zen, Iraitz Gaztiain hamalagarren eta Maddalen Toledo hamaboskarren. Apirilaren 8an jokatu dute txapelketa bigarren proba, Zarautzen.

Okerrak zuzendu eta Antzuolako euskeran emon

1. Beste egunian zintz egin nitzan.

1.

2. Ni Mikelena gustatzen naiz.

2.

Izen-abizenak eta telefonua:

bertako hizkeria



Aurreko Kontuolako erantzun zuzenak:

1. Amama eta aitaitta debalde jua dira Benidormera.
2. Ziburuetan ibilli zeinke.

Sarituak: Jaime Larrea eta Haizea Aranguren

Eskuman erantzunak idatzi ostian, moztu eta laga Antzuolako udal liburutegian, **DATORREN EGUAKITZA BAINO LEHEN.**

Erantzun zuzenen artian 5.000 pezeta eta "Antzuolako hizkera" liburuaren ale bat zozketatuko ditugu hamabostero.


KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotutak
- Moketak eta tapizatutak

GAILUR
taberna eta
gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA BERGARA
609 157 131 609 150 164

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Billegia: 943 78 70 40



Giro aparta martitzenean

Martitzena ere ez zen makala izan. Txino, ijito, apaiz, mediku... denetarik izan genuen kalean gora eta kalean behera. Baita dantza egiteko aukera ere Drindots taldearekin.



Udaberria iristear dagoen honetan, eguraldiak hobera egin orduko, barra-barra ikusten ditugu txirrinuzaleak gure errepedeetan, eta pasiatzera irteten diren herritarrak ere gero eta gehiago izaten dira. Jar-duera ezin hobek, biak ere, behingoz, kotxea alde batera laga eta kirol pixkat egitea ez baita batere gaizki etortzen. Hala ere, txirrinduan ibiltzeak sekulako arriskua suposatzen du gaur egun, eta horixe da, gainera, gustatu arren, bizikletan ibiltzearen aukera baztertzeko askoren arrazoia: errepedeak darraren arriskua hain zuzen ere. Gaur egun, gero eta kotxe gehiago dago, eta gure errepede bazterretan ez dago leku handirik txirrinduendako. Honek istripuen izugarritzko gorakada ekarri du azken urteotan. Duela sei urtetik honako daturik ez daukagun arren, 1990etik 1994ra bitarteko datuak oso esanguratsuak dira zentzu honetan: urte horietan, 16.000 istripu baino gehiago egon zen Estatu mailan, eta 700 txirrinuzale baino gehiago izan ziren ezbehar horietan hil zirenak. Datu latzak, zalantzarik gabe.

“LEHENDABIZI” PROIEKTUA

Debagoiena mailan, bada bidegorrien alde diharduen talde bat, Lurrats izeneko, hain zuzen ere. Jose Felix Diaz de Tuesta kidearen esanetan, duela sei urte osatu zuen Lurrats lagun talde batek, eta gaur egun 20 lagunek dihardute bertan lanean. 1998. urtean, Kalapie Donostiako Txirrinuzale elkartearekin elkarlanean, “Lehendabizi” izeneko proiektua landu zuten. Bertan, Gipuz-

Trenbidea bidegorri

Bizikletendako eta oinezkoendako ibilbidea

Bergara zeharkatzen duen trenbide zaharrean herritar ugari ibiltzen da egunero-egunero, eta, are gehiago, orain, eguraldiak hobera egin duen honetan. Eibar-Gasteiz autobidearen proiektuaren barne, Debagoieneko trenbide sarea bidegorri bihurtzeko proiektua eskuartean darabil Gipuzkoako Foru Aldundiak, oinezko eta txirrinuzaleendako pasialeku egokia bilakatzeko asmoz.

koa guztia zeharkatuko lukeen bidegorri sare bat proposatzen zuten bi taldeok.

Alde batetik, errepedeak txirrinduzaleentzat daukan arriskua saihestea ekarriko luke behar bezalako bidegorri sare batek. Bestetik, gure ingurunea eta naturaz gozatzeko aukera paregabea ere eskainiko lieke txirrinuzale eta oinezkoei, “Lehendabizi” proiektuan azaltzen den bezala.

Gaur egun, Gipuzkoa mailan, 17 kilometro bidegorri daude, Donostia barruko 20 kilometroak kontuan hartu gabe. Gertatzen dena, baina, zera da: 17 kilometro horiek hainbat tramotan banatuta daudela. Diaz de Tuestaren esanetan, “dauden bidegorriak oso motzak dira, eta ez daramate inora. “Lehendabizi”ren helburuetako bat Gipuzkoa osoa zeharkatuko lukeen etenik gabeko ibilbide bat osatzea litzateke”.

LURRATSEN PROPOSAMENA

Esan bezala, 1994. urtean sortu zuen Lurrats Arrasateko lagun talde batek, bidegorrien alde lan egiteko asmoz. Horrela, Eibar-Gasteiz autobidearen proiektua aurkeztu zenean, bailara mailan autobide hau aztertzeke sortu ziren eztabaida taldeetan, trenbide zaharra bidegorri bihurtzeko ponentzia aurkeztu zuten. Eztabaida talde horietako partaide guztien oniritziaren gain (ekologistak, autobidearen aldekoak...), Gipuzkoako Foru Aldundiak ere begi onez ikusi zuen proposamena. Foru Aldundiak Lurratsi adierazi zionez, printzipioz, Eibar-Gasteiz autobidea




Errepedeak, gaur egun dauden bezala egonda behintzat, arriskutsuak dira bizikletan ibiltzeko.

“Bidegorria ez zait irtenbidea iruditzen, arazoa errepedeen egoera kaskarra da”

MIGEL ANGEL LARRAÑAGA

“Gure helburua, bizikleta eta oinezkoendako etenik gabeko ibilbidea egitea da”

JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA



Bergara batetik bestera zeharkatzen duen trenbide zaharrean jende ugari ibiltzen da egunero egunero, bai bizikletaz, eta baita oinez ere.

amaitu eta urtebetera prest egongo da bidegorria. Beraz, bospasei urte joango dira oraindik bidegorria egin artean. Jose Felix Diaz de Tuestaren arabera, "eskualde honetan abantaila garrantzitsua daukagu, trenbide zaharra egoera on samarrean dagoelako, eta gutxieneko azpiegitura bat badagoelako".

Bergaran, Mekolalden hain zuzen ere, bi trenbidek topo egiten dute. Beraz, etorkizunean egokituko den bide-

gorriak honako ibilbideak izango lituzke: alde batetik, Antzuola aldetik datorrena daukagu, goikoa, eta bestetik, Arrasate aldetik datorrena, eta herria erditik zeharkatzen duena. Hasiera batean, behintzat, trenbide guztia berriztu eta bidegorri bilakatzea espero da.

Victoriano Gallastegi Mankomunitateko presidentek esan digunez, pare bat aste barru Foru Aldundiko ordezkariekin bilera bat egingo dute gai hau

lantzeko asmoarekin. Mankomunitatearen zeregina edo eginbeharra kasu honetan, Diputazioari lehenbailehen erantzun bat emateko eskatzea da. "Gure nahia, ahalik eta azkarren Foru Aldundiarekin hitz egin, eta epe jakin batzuk eman diezazkigun lortzea da, eta egin nahi duten proiektuaren nondik norakoen berri eman diezagutela, gero guk hori aztertu eta geure ikuspuntua eman ahal izateko". Victorianok esan digunez, gainera, "herritarrei informazioa emateko ere lehenengo Foru Aldundiaren asmoa zein den jakin beharra daukagu".

TXIRRINDULARIEN IKUSPEGIA

Bidegorriei dagokienez, txirrinduzaleen iritzia ere ezagutu nahi izan dugu, eta Lokatza Txirrindulari Eskolako presidente den Migel Angel Larrañagarengana jo dugu. Bere esanetan, "bidegorria oso egokia da txirrindularitzan hasten diren haurrentzat, baina nagusientzat ez zait irtenbide egokia iruditzen. Alde batetik, ez dago aldaparik, eta alde horretatik entrenamendurako ez da batera aproposa. Beste alde batetik, nahiz eta argi dagoen errepidean ibiltzeak arrisku bat dakarrela, gure ustez, bidegorria ez da konponbidea txirrindulari helduendako. Arazoa da hemen inguruko errepideak oso estuak direla, eta ez dagoela bizikletendako lekurik. Gainera, dauden arzen zatiak egoera txarrean daude, kristalez, zikinkeriaz eta zuloz beteta." Horrez gain, autobidea egiten dutenean, gaur egungo errepidean, trafikoa eta, ondorioz, arriskua ere murriztuko den itxaropena dute.

Zer iruditzen zaizu trenbidea bidegorri bihurtzea?



LUPE DE MARCOS

Irtenbide ona izango litzateke oinezkoendako eta bizikletendako egokitutako bidegorri bat egitea. Gu egunero ibiltzen gara pasiatzen, eta orain pixka bat hobeto dago, baina jadanik hasi dira atzera ere zuloak azaltzen.



GREGORIO SOPELANA

Hemen jende asko ibiltzen gara, eta ondo egongo litzateke bidegorri bat egitea, oinezkoendako eta txirrinduzaleendako. Orain nahikoa ondo dago, baina hobetu beharko litzateke, brea bota beharko lukete.



HIGINIO RUIZ

Eguraldi ona egiten duenean, egunero ibiltzen naiz bizikletan trenbide zaharretik, baina eguraldi txarra egiten duenean, tramo batzuk lokaztu egiten dira. Horregatik, nik uste dut oso ideia ona dela.



M. DOLORES ARIZABALETA

Nahiz eta orain konpondua dagoen, uste dut konponketa sakonago baten beharra daukala trenbideak. Gainera, kotxe eta bizikleta ugari ibiltzen da. Horregatik, oso ondo iruditzen zait bidegorri bat egitea.

Saskibaloitalde nagusiaren partidu erabakigarria zapatuan

Jaitsiera postuetatik irtetea da helburua

Bolsos Bergara saskibaloitaldeak Santo Tomas Lizeoa taldearen bisita jasoko du bihar, zapatua, 19:00etatik aurrera Labegaraietako Kiroldegian.

Fernando Moretonek eta Alex Familiarrek entrenatzen duten senior mutilen taldeak azken bi partiduak galdu ditu, etxean Beasainen aurka duela 15 egun, eta Ordiziaren aurka, 79-57ko emaitzarekin, azken jardunaldian. Bergararrak jaitsiera fasea jokatzeko ari dira orain, eta momentuan, 10 taldeetatik, sailkapeneko zortzigarren tokian ditugu. Azken bost taldeak liga autonomikotik probintzialera jaitsiko dira. Alex Familiarren arabera, "azken bi partiduak galtzeak kalte handia egin digu, sailkapena oso estu dagoelako eta hirugarren tokian egongo ginatekeelako bi partidu horiek



Argazkian, aurtengo denboraldiko senior mutilen taldea.

irabaziz gero. Beraz, jaitsiera postuetatik ateratzeko behar-beharrezkoa zaigu bihar garaipena lortzea".

Ligako lehendabiziko fasean ere mahoneroak sailkapenaren behealdean geratu ziren (8. postuan); hori dela eta, mailaz jaisteko arriskua daukate. Bihar garaipena lortuz gero, Bergarak urrats garrantzitsua emango luke zulutik ateratzeko. Santo Tomas Lizeoak sei partidu irabazi eta beste

lau galdu egin ditu orain arte; Bergarak, aldiz, sei galdu eta lau irabazi. Donostiarrekin parekatzeko aukera ederra izango dute bihar bergarrek.

BAJARIK EZ

Begarako taldean ez da inolako bajarik izango biharko partiduari begira. Taldeko 12 jokalariai jokatze gertu izango dira, eta Alex Familiarrek azaldu digunez, "Santo Tomas Lizeo-

ak ez ditu oso jokalarialetuak, baina asko borrokatzen duen taldea dela aipatu didate. Zonan jokatze ohitura daukate, eta ea asmatzen dugun eraso jokaldietan zona sistema hori gainditzen".

Esan bezala, taldearen asmoa kategoriari eustea da, eta bihar ikusleek zeresana izan dezakete etxeko jokalariai animatu eta hain garrantzitsua den garaipena lortu ahal izateko.

Motorzale peña sortzeko bilera bihar

Begarako motorzale talde batek herrian peña bat sortzeko lanetan dihardu, eta dei egiten die kide izateko interesa duten guztiei bihar, hilak 11, 16:00etan, Zapelaitz tabernan egingo den bileran parte hartzeko. Badira 15 bat urte, eguen gauero, Zapelaitzen bertan motorzaleak elkartzen direla. Orain, peña bat sortzeko urratsak bete nahi dituzte, eta horretarako, elkarteko estatutuak onartu eta beste-

lako tramiteak egiteko asmoa dute.

Biharko bileran, besteak beste, elkartearen estatutuak, bazkideen kuotak eta taldearendako lokal bat lortzea izango dira aztergai. Peñaren bultzatzaileen arabera, Bergaran motorzale dezente daude, eta badago 25 bat laguneko taldea osatzeko aukera. Behin peña sortuz gero, irteerak eta bestelako ekitaldiak antolatu lituzkete motorzaleek.



laz Soriara egindako irteera bateko irudia.

Hilario Aranzabal garaile herriko ehiza txapelketan

Hilario Aranzabalek irabazi zuen, domekan, Arabako Santa Cruz del Cierro herrian jokotutako herriko ehiza txapelketa. Bergarako ehiza txapelketaren 22. edizioan 88 lagun izan ziren lehian Coto del Castillon jokotutako lehiaketan. Ehiztariak hiru multzotan banatu zituzten antolatzaileek, eta aipatutako hiru taldeak beste hainbeste zonatan aritu ziren ehizan goizeko 9etatik eguerdiko ordu bata bitartean. Guztira, 221 faisai eta 18 eper ehizatu zituzten goiz osoan zehar.

Esan bezala, Hilario Aranzabal izan genuen txapeladuna, "Dax" izeneko pointer txakurraren laguntzaz; 10 faisai eta 5 eper lortu zituen Aranzabalek, eta



Aranzabal (eskuman) trofeoarekin. MUJICA

lehendabiziko aldiz eskuratu zuen herriko ehiza txapelketa. Sari gisa, trofeoa jaso zuen Hilariok. Bigarren postuan, Ramon Igartua sailkatu zen, 9 faisai eta eper bat ehizatu ondoren.

Eta hirugarren tokian, Vicente Uribesalgo "Txara" beteranoa geratu zen. "Txara"k hamar faisai akabatu zituen, baina Igartuak eper bat hartzea lortu zuenez, hirugarren postuarekin konformatu behar izan zen Uribesalgo.

EGURALDI ONA

Oilagorra elkarteko ehiza eta arrantza sailak antolatutako txapelketan giro ona izan zen nagusi partaideen artean, eta ehiztariak eguraldi ona izan zuten lagun. Ondoren, bazkaria egin zuten. Aipatzekoa da antolatzaileak pozik azaldu direla txakurrak lagundutako ehiza xeheko aurtengo txapelketako partaidetzarekin.

Igerilekuak zabalik

Osakidetzak agintutako garbiketa burutu ondoren, udal igerilekuak instalakuntzak bihar, zapatua, zabalduko dira. Bainua hartzeko aukera uraren tenperaturaren arabera izango da, ura gutxienez 25 °Ctan egon beharko da eta.

Eskiatzera joateko irteerak

Pol-Pol Mendizale Taldeak martxoaren 17tik 19ra bitartean Baqueira Beretera eskiatzera joateko irteera antolatu du. Era berean, apirilaren 21etik 29ra Deux Alpesera beste eski irteera bat egingo da. Argibideak: 943 76 48 51.

Kiroldegiko tenis pista prest

Kiroldegiko tenis pista berria egiteko lanak bihar, zapatua, amaitzekoak dira. Tenis-sinco enpresak egin ditu lanak eta tenis pista berriaren inaugurazioa datorren zapatuan, hilak 18an, egingo da Kirol Zerbitzuaren arabera.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-La Salle
Infantilak
Zapatua. 11:00. Ipintza
Bergara-Amaikak Bat
Lehen mailako jubenilak
Zapatua. 16:30. Agorrosin
Bergara-Mariño
Ohorezko kadeteak
Zapatua. 18:15. Ipintza
Bergara-Luberri
Bigarren mailako jubenilak
Domeka. 11:30. Ipintza

SASKIBALOIA

Bergara-Intxaurren
Senior neskak
Zapatua. 16:00
Mariaren Lagundia
Bergara-Santo Tomas Lizeoa
Senior mutilak
Zapatua. 19:00. Kiroldegia
Bergara-Zarautz
Kadete mutilak
Domeka. 10:30.
Mariaren Lagundia

ESKUBALOIA

Bergara-Aieru
Senior mutilak
Domeka. 12:15. Kitroldegia

ARETO FUTBOLA

Lagunak-Aloña Mendi
Jubenil mutilak
Zapatua. 12:30. Kiroldegia

PILOTA

Bergara-Eskoriatza
Deba Arroko Txapelketa
Martitzenean, hilak 14,
19:30etan Udal Pilotalekuan

Larkano

KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK

Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Moskis-Ari Ari	0-3
Sirimiri Eri-Etengabe	7-0
Pagomendi-Azpeitxi jatetxea	2-2
La Juve-Pinturas Bergara	0-3

B MULTZOA

Amilox-Urrutxurtu	1-9
Patxaran Team-Mongatxurak	3-9
Patatus-Bayer	1-5
Agirrebeña-Tom Cat Argandolas	6-4
Amoskibar-Bildurbarek Opel Lam	3-0

C MULTZOA

Ion Autoak-Shaktale	2-4
Uve Bikoitza-Buya	2-2
A Ze Flaxa Etxagi-Vacalouras	7-2
Agiañazpi-Ortzi	0-3
Soropotroak-Torrekua	8-3

D MULTZOA

Artusamak-Fac	2-0
Aterpe-Bar Canalejas	3-11
Txipiron-Komando Piperrak	7-1
Guadalest-Errotagain	4-3

SAILKAPENAK

A multzoa

	P	J
1. Pagomendi	49	18
2. Irubide Jatetxea	32	17
3. Azpeitxi Jatetxea	31	18
4. Sirimiri Eri	27	17
5. Pinturas Bergara	25	18
6. Ari Ari	20	18
7. Etengabe	18	17
8. Mo(ko)lotov	13	17
9. Moskis	10	18
10. La Juve	9	18

B multzoa

	P	J
1. Bayer	42	17
2. Amoskibar	37	17
3. Mongatxurak	37	17
4. Urrutxurtu	29	17
5. Bildurbarek Opel Lam	19	17
6. Patxaran Team	18	17
7. Amilox	16	17
8. Tom Cat Argandolas	15	17
9. Agirrebeña Jatetxea	14	17
10. Patatus	1	17

C multzoa

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	43	17
2. Ortzi	39	17
3. Shaktale	34	17
4. Uve Bikoitza	23	17
5. Ion Autoak	22	17
6. Buya	20	17
7. Soropotroak	16	17
8. Vacalouras	14	17
9. Agiañazpi	10	17
10. Torrekua	7	17

PARTIDUAK

ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Urrutxurtu-Agirrebeña	Shaktale
10:00: Shaktale-Vacalouras	Patatus
11:00: Bildurbarek -Patatus	Vacalouras
16:30: Fac-Guadales	Uve bikoitza
17:30: Torrekua-Uve bikoitza	Gualades

DOEMKAN BARRUAN

09:30: Txipiron-Aterpe	Bayer
10:30: Bayer-Amilox	Txipiron
16:00: Etengabe-Iru Bide	Sirimiri Eri
17:00: Mo(ko)lotov-Sirimiri Eri	Etengabe
18:00: Ufala-Artusamak	Ortzi
19:00: Ortzi-Ion autoak	Mongatxurra
20:00: Mongatxurra-Amoskibar	Ion autoak

DOEMKAN KANPOAN

11:30: A ze flaxa-Soropotroak	Aginaspi
12:30: Buya-Agiañazpi	Soropotroak
16:00: Xurruapak-Bar Canalejas	Sirimiri Eri

D multzoa

	P	J
1. Errotagain	44	17
2. Guadalest	37	17
3. Fac	35	17
4. Bar Canalejas	35	17
5. Artusamak	31	17
6. Txipiron	20	17
7. Xurruapak	19	16
8. Komando Piperrak	7	16
9. Ufala	4	17
10. Aterpe	2	17

mahoneroak



MIKEL LARRAÑAGA "Maki" Eibar taldeko jokalaria


Partidu gogorra izan zen zapatukoa, eta, egia esateko, ez zen partidu ikusgarria izan, ez eurok eta ez guk ez genuen-eta gol aukera handirik izan. Etxean jokatzeko zutenez, Bergarak zelai erditik aurrera jokalaria gehiago jarriko zuela uste genuen, baina nahikoa atzean jarri ziren, eta erasoko jokaldietan Oxel, Dueñas, Gotzon eta Luis Blanco aritu ziren gehien. Josetxoren baja ere igarriko zuen taldeak.

Bigarren zatia hasieran guk partiduko gol bakarra egin ondoren, Bergarak zertxobait aurrera egin zuen, baina nahi eta ezin ikusi nituen etxeakoak. Oxel izan zuen aukerarik garbiena, baina baloiak ihes egin eta ez zuen asmatu. Gu, oster, atzean ondo ibili ginen, eta kontraerasoan alde handitzeko aukerak ere izan genituen. Bergarak laugarren partidua jarraian galdu zuen zapatuan; hala ere, hirugarren mailari eusteko moduko taldea daukalakotan nago ni. Nire ustez, Bergara baino talde txarragoak badaude.

Informazio hau babesle hauei esker:


OGIZUN

koop. elk.
okindegia



San Pedro 21
BERGARA
943 76 20 49

Zubillaga z/g
OÑATI
943 78 24 13



Irizar 2
☎ 943 76 14 95
JAUJA
KIROLAK

talde federatuen emaitzak

FUTBOLA

Bergara 0; Eibar 1
3. maila
Urola 1; Bergara 4
Lehen mailako jubenila

ARETO FUTBOLA

Bergara 2; Aloña Mendi 3
Senior mutilak
Azpeitia A 19; Bergara 7
Jubenilak

SASKIBALOA

Ordizia 79; Bergara 57
Senior mutilak

ESKUBALOA

Bergara 20; Ordizia 8
Kadete mutilak
Bergara 6; Urola 20
Kadete neskak

PILOTA

Deba Arroko Txapelketa.
Oñati 1; Bergara 2
(Seniorretan 8-22,
jubeniletan 4-22
eta kadeteetan 22-5).

Otsein Saria

Eibarren aurka jokalaria hauek nabarmendu ditugu:

Markel Egaña 3 puntu
Gorka Dueñas 2 puntu
Jokin Mendiartz .. 1 puntu

Etxeko partidua bakarrik hartzen dira kontuan.

kronika kadete mutilen eskubaloi taldea

Ordiziarrak eskas

BERGARA 20

ORDIZIA 8

Bergara: Jon Zangitu, Ibai Otxoa-Aizpurua (2 gol), Ander Laborda (7 gol), Mikel Soriano (gol bat), Mikel Calvo, Ander Alvarez, Mikel Larrañaga (gol bat) -hasierako taldea-, Jon Kapelastegi, Iñaki Manuel, Josu Agirre, Jon Ugartetxea (9 gol), David Guisado eta Jon Lasa.



Artxiboko argazkian, Elgoibar taldearen aurka jokatu zuen taldea.

Ordiziako taldeak itxura eskasa azaldu zuen, zapa-tuan, Kiroldegian Bergara-ren aurka jokaturako partidu-an. Lehenik eta behin, jok-lari bat gutxiago zutela kantxaratu ziren ordiziarrak eta, gainera, lehen zatia amaitu baino lehen, epaile-ak ordiziarren taldeko joka-

lari bat kanporatu zuen. Be-raz, bigarren zati osoan etxekoek bost jokalariren kontra jokatu zuten, eta ez zuten inolako eragozpenik izan garaipena eskuratzeko.

Edu Inñarrak, Aitor Iba-rrak eta Edu Egurenak en-trenatzen duten taldeak

erraztasun guztiak izan zi-tuen zapatuan. Partiduak ez zuten istoria handirik izan. Lehen zatian, ordiziarrek uste baino erresistentzia handi-agoa azaldu zuten, eta defentsan ondo aritu ziren. Bergarak ez zuten jok-lari bat gehiago izatearen aban-

taila behar bezala aprobe-txatu eta atsedendian hiru goleko abantaila besterik ez zuten lortu (8-5). Ordiziakoa dugu Federazio Txapelke-tan ari den talde makalene-takoa eta Bergarak garaipe-naren bidea berreskuratu zuen. Jon Ugartetxea eta Ander Laborda izan geni-tuen goletzaille nagusiak.

Kadeteek ez zuten Liga txapelketan parte hartu jok-lari faltagatik eta Federa-zio Txapelketan infantilekin ere jokatu behar izan dute behin baino gehiagotan. Zapa-tuan ere taldea indartze-ko Kapelastegi, Manuel eta Agirre infantilek kadeteekin batera jokatu zuten eta lan aipagarria egin zuten hiru-rek.

Txapelketari hasiera bi-kaina eman arren, infantilen esperientzia falta zela eta (urte baten aldea asko na-baritzen da honelako kate-gorietan), bergarrek hiru partidu galdu zituzten jara-rian eta lehendabiziko postuetatik behera egin zuen taldeak.

Astebukaera honetan bergarrek Arrasateren aur-kako derbia izango dute kanpoan.

JON MENDIZABAL / Txirrindularia

"Nahiko erregularra naizela uste dut"

Joan zen zapatuan afiziona-tuen mailako CDR taldea aurkeztu zen Eibarren. Ber-tan, Jon eta Arkaitz Mendi-zabal bergararrak arituko dira. Orain arte Lokatzen aritu ondoren, Jon (18 urte) lehenbiziko urtea izango du afizionatueta.

G. Denboraldia martxan da.

E. Bai, domekan lehen proba korritu genuen Atarrabian eta hemendik aurrera egutegi go-gorra izango dugu denboraldia amaitu bitartean. Atarrabiako proban tropelarekin batera helmugaratu nintzen, eta nahiko ondo bukatu nuen.

G. Zenbat kilometro egin dituzu dagoeneko?

E. 4.500 inguru. Ez dira horren-beste, gehiago egin dutenak ere badira eta. Astean sei aldiz entrenatzen naiz, batez beste entrenamendu bakoitzean 100 bat kilometro eginez.

G. Dieta zaindu be-harko duzu...

E. Bai, koipeak di-tuzten elikagaiak ebitatzen ditut. Orain, 72 kilo ditut eta zertxobait kenduko dut oraindik.

G. Zein as-mo dau-kazu?

E. Afi-ziona-tue-

tan kalitate handiko jendeare-kin batera korritzen da; errit-moa ere askoz biziagoa da. Ka-tegoriara ahalik eta ondoen moldatzen ahaleginduko naiz.

G. Zein terrenotan moldatzen zara ondoen?

E. Egia esan, ez dut terreno konkretu batean destakatzen. Guztietan nahiko erregularra naizela esango nuke.

G. Gorrako igoeran parte hartzeko asmorik?

E. Ikusi behar. Nahi-ko proba gogorra eta selektiboa da, eta ondo baldin banago, joango naiz. Ilusioa egin-go lidake parte hartzek.



1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisua Fraiskozurin, ganbarekin. 103 m². Deitu 943 76 49 56 telefonora.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Pisua salgai Zubietan. Deitu 943 76 12 61 telefonora.

Pisua salgai Antzuolan. 943 61 29 17/ 63 52 63 (Rakel).

EROSI

Bergaran etxea erosiko genuke. 943 21 99 02.

Etxebizitza erosiko nuke Bergaran. 943 76 09 99.

Pisu txiki bat erosiko nuke (igogailuduna derrigorrez). 943 76 12 61.

Etxea erosiko nuke Benidormen; aukeran, 3 logeladuna eta itsaso ondoan. 943 76 24 54.

ERRENTAN EMATEKO

Bungalow bat Torrevieján, udan. Hondartzatik gertu. 943 78 14 72.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Mugertzako gainean 35 m²ko lokala alokairuan. 943 76 21 49.

Lokala alokairuan Martokon. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAITZAK

Emakume batek edade-tuak eta gaixoak zainduko lituzke. 943 76 04 57.

Etxeko lanak, umeak zaindu edo dendari lanak. 636 76 25 70.

Emakumeak etxeak garbitu eta edadetuak zaindu. 943 76 09 33.

Etxeko lanak, haurrak zaindu edo dendari lanak. 943 76 60 56 (Joana).

22 urteko mutilak lan egingo luke zapatueta (baserri lanak...). 943 78 26 77 (Arkaitz).

Etxeko lanak edo plan-txa orduka. 943 76 54 82.

Neska euskalduna goizez lan egiteko gertu. Deitu 943 76 23 41 telefonora.

Txoferra lanerako prest, C eta C-1 gidabaimena eta garraioetarako dituen. 943 76 30 34.

ETXE KONPARTITUAK

Pisua konpartituko nuke. Deitu 667 52 48 98 telefonora (Andres).

2. GARAJEAK

SALDU

Antzuolan, Zurrategin. Deitu 943 76 64 00 telefonora.

Bolu. 2 plaza. 616 049 865.

Antzuola, Kalegoi. 943 76 47 16.

Masterreka (Pertxa azpian). 696 460 406.

Ozaeta. 943 76 73 00.

Garajea salgai Bolun. Deitu 943 76 19 69 telefonora.

Garajea salgai edo alokairuan. 943 76 22 22.

Ibargarai. 1.500.000 PTA. Deitu 943 76 72 17 telefonora.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Zu-

biaurren. 943 76 23 53.

S. Marina. 943 76 41 88.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea hartuko genuke. Deitu 943 76 23 68 telefonora (Maitel).

Zubiaurren garajea hartuko nuke. 943 76 08 26.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m².

13,5 milioi. 943 76 11 13.

Etxabe komertziala salgai edo alokairuan Aranerrekan. 943 76 32 00.

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke S. Lorentzon. 300 m². 607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Bolun (100 m²) eta Arruriagan (18m²) lokalak alokairuan. 606 96 23 80.



Etxebizitza berriak Antzuola erdi-erdian

- Laster hasiko gara eraikitzen.
- Leku ezin hobean.
- Punta-puntako materialekin eraikiak
- 18 milioitik hasita

Korosti inmobiliaria: Santi Kutz 8, behea. 20230 Legazpi. Tf. eta faxa: 943 73 05 25.

PANA DE ROKUA
IA TEIXEAL

Asteburuetan bertako *babak eta saiheskia*

SALBADOR 10 **ELGETA**
Tf. 943 76 82 73

Jatetxerako
ZERBITZARIA eta
SUKALDARI
LAGUNTZAILEA
behar dira

943 76 20 29

Samadhi
yoga

Yogoterapia eta erlajazioaren zentrua

Laster zabalik!

Tabernarako
ZERBITZARIA
behar da

943 76 59 19

Klinika laguntzaileak
gaixoak edo zaharrak
zainduko lituzke.
609 77 01 33 (Asis).

Neska bat goizez garbi-
ketak egiteko gertu.
943 76 38 73.

Neska lanerako gertu.
943 76 00 90.

Neska goizez lan egite-
ko gertu. 943 76 57 81.

ESKAERAK

Neska behar da etxeko
lanak egin eta umeak
zaintzeko. 943 76 05 55.

Pertsona bat behar da
goizero 2 orduz umea
zaintzeko. 943 76 14 54.

Neska behar da etxeko
lanak eta umeak
zaintzeko. 943 76 01 57.

Neska etxeko lanak
arratsaldez orduka
egiteko. 943 76 13 53.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

9-13 urtekoei mate, in-
geles... klaseak ematen
dizkiet. 943 76 33 68
(Maite).

Kitarra, soinu eta pan-

dero klaseak ematen
ditut. 943 76 45 73.

ESKAERAK

UBiko matematika kla-
seak hartuko nituzke.
943 76 33 23.

Pertsona bat behar da
11 urteko mutiko bati
partikularrak emateko.
943 76 46 49.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Citroën AX 1.4.
SS-AB.200.000 PTA.
630 750 099.

Iveco Pegaso furgone-
ta-kamioia (SS-AP). Ga-
rraiorako txartel nazio-
nalarekin. 943 76 42 01.

Fiat Tipo 16v. (SS-AM).
943 76 06 53.

Renault 5. (SS-V).
Deitu 943 76 37 74
telefonora.

Puch motorra. 30.000
pezeta. 943 76 29 95.

Opel Astra 1.6 GT.
943 76 00 12 (gauzez).

Opel Kadett GSI 16V.
Egoera ona. 943 79 75 11
/ 98 08 (Mikel).

Kadett 1.4. 630 750 099.

Renault 21 (SS-Z).
943 76 26 92a.

Kawasaki Vulcan
motorra (500 cc.).
617 76 67 60 /
943 76 27 00.

7. ANIMALIAK

SALDU

Txahalak eta bildotsak
izozkailuan sartzeko;
labeldunak; natural
hazita. 689 541 861.

Setter bat galdu dut
Goiko Estaziñon ingu-
ruan. Zuria, marroia eta
beltza. 943 76 47 82.
607 456 714 (Rafa).

8. DENETARIK

SALDU

Sukaldeko altzariak,
arraska eta kanpaia sal-
gai. 943 76 55 63.

Hapro solariuma. Egoe-
ra onean. 943 76 51 76.

Imar karro-denda.
943 76 59 56.

Bateria salgai. Merke.
943 76 50 77 (Manu).

Aulkiak eta mahaiaik.

943 76 46 90.

Jangelako mahaia eta
sei aulki. 943 76 34 48.

EROSI

Diskoak, singleak eta
LPak erosten ditut.
943 52 65 77.

LPak erosten ditut.
943 79 76 90.

Terrenoa erosi nuke
Bergara inguruan ura
eramateko aukerarekin.
943 76 32 14 (18:30etik
aurrera).

EMAN

1-7 urte bitarteko ume-
endako erroa eta bai-
nera, konketa eta komu-
na opari. 943 76 44 34.


HARTU

Caritasek sukalderako
armairuak behar ditu.
943 76 11 98.

GALDU

Argazki kamera galdu
nuen martxoaren 4an.
943 76 54 20 (Nerea).

Euritarako txanoa galdu
dut. 943 76 46 90.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**INFORMATIKAN
LIZENTZIATUA**
Bilbo. 28774/2

**ENKOFRATZAILE
PEOIA**
Urola Erdia. 29111/5

**GOZOTEGIRAKO
SALTZAILEA**
Bilbo. 29374/6

**SARRERA
ZAINZAILEA**
Oiartzun. 29380/4
Beasain. 29381/4
Zarautz. 29382/4
Tolosa. 29383/4

SOLDATZAILEA
Goierri. 29492/4

KOMERTZIALA
Bilbo. 29643/4

**KOMERTZIAL
TEKNIKARIA**
Bilbo. 29655/1

**MERKATARITZA-
AGENTEA**
Bilbo. 29679/1

**MANTENIMENDURAKO
ELEKTRIZISTA**
Goierri. 29716/1

**AUTOMATISTA
ELEKTRONIKOA**
Ezkerraldea. 29753/3

2 PROGRAMATZAILE
Bilbo. 29798/3

**PORTUGES
ITZULTZAILEA**
Bilbo. 29803/1

**CNC PROGRAMETA-
RAKO IRAKASLAEA**
Lea-Artibai. 29833/1

**ENPRESA
PROMOTOREA**
Donostia. 29899/1

**INFORMATIKA
IRAKASLEA**
Bilbo. 26895/2

KOMERTZIALA
Bilbo. 27396/2

KABLEATZAILEAK, 2
Gasteiz. 27682/4

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu,
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta
egukitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78

Esperientziadun
MEKANIKOA

behar da Bergararako.
Bidali curriculumea:

61 posta kutxa
20500 Arrasate

MECA BERGARA
Amillaga 5. BERGARA. Tf. 943 76 40 68

ARDATZA
Brikolaketa

Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak

Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

MIREIA GABILONDO. Aktorea, zuzendaria eta gidoigilea

“Triciclerekin lan egitea natural ateratzen zaigu, azken lan honetan batik bat”

Mireia Gabilondo burubelarri ari da lan berri batean: “Ez da hain erraza” izenekoan, hain zuzen. Ttatakak Tricicle taldearekin koproduzitako hirugarren lana da hau, eta honen eta beste gai batzuren inguruan berba egiteko egon gara berarekin.


G. “Ez da hain erraza” obra, Ttatakak Triciclerekin koproduzitutako hirugarren lana da. Nondik sortu zen zuen arteko harremana eta zergatik elkartzarete lan berri honetarako?

E. “El florido pensil” da elkarrekin egin genuen lehenengo lana. Bartzelonan ere antzeztu genuen, katalanez. Lan hori “Tres por tres” produktorekin koproduzitu zuen Ttatakak, eta “Tres por tres” produktora horren barruan “Dagoll-Dagom”, “Tricicle” eta “Anexa” antzerki taldeak daude. Hori izan zen, beraz, gure lehenengo harremana Triciclerekin.

Horren ostean, “Dakota” etorri zen, eta orain, “Ez da hain erraza”. Triciclerekin lan egitea hau oso natural atera zaigu, oso harreman ona daukagu, eta zehazki “Ez da hain erraza” lanean, berdintzen dugu; ez dakit, antzezlan honetan benetan elkartu gara.

G. Zein da obraren argumentua?

E. Gizonezko bat taberna batera sartzen da, eta bertako kamareroari



Senarrak laga nahi duen emakumearen papera egiten du Mireiak.

emaztea utzi nahi duela kontatuko dio. Emaztea laga nahi bai, baina lagun iza-teari utzi gabe, eta ez daki nola egin, “ez da hain erraza” eta. Kamareroari aholkua eskatu, eta bion artean hainbat modu imaginatzen dituzte. Modu hauek guztiak ikusleak eszenifikatuta ikusiko ditu. Nola bukatzen den, ba... ikustera etorri beharko duzue.

G. Nor zara zu antzezlanean eta zein da zure lana?

E. Nik emaztearen papera egiten dut. 30 aldiz esango dit nire senarrak nirekin moztu nahi duela; nahiz eta maite nauen, badoala. Eta nik, berriz, 30 modu ezberdinetan hartuko dut albistea. Beraz, noizbait nire bizitza pribatuan honelako egoera batean aurkitzen banaiz, badut non aukeratu.

G. Katalunian antzeztu da dagoeneko, katalanez. Ezberdintasunik izango du hemen gaztelaz zein euskaraz antzeztuko denarekin?

E. Katalunian egin dutenarekin alderatuz, gure testoa ezberdina da, bisualagoa da. Elementu asko gehitu dizkiogu, sorpresa txikiak ere tartekatu ditugu. Alde horretatik, Katalunian egingakoa baino zinematografikoa-goa da.

G. Beste proiekturik baduzu?

E. Buruan asko ditud, eta ez daitezela falta. Baina orain gidoigile eta zuzendari ari naiz Euskal Telebistan: “Sorginen Laratza”ko

“Ez gaude konforme” atalean eta hemendik gutxira hasiko den “Linea lizuna” saioan.

G. Etorriko zarete Bergarara lan berria aurkeztera?

E. Gogoia bai, handia, baina hori ez dugu guk erabakitzen. Dena den, nik ere badut galderatxo bat: noizko Bergaran behar den moduko antzoki bat?

ETXEPARE-BILINTX



LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 943 76 40 50 BERGARA

Mujika
geneologia



Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errellekoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

XV. Literatur Lehiaketako oinarriak kalean dira

Lehiaketa honetan Bergaran jaio, bizi edota lan egiten duen edozeinek har dezake parte. Aurkeztutako lanek argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute, eta adinaren araberrako bost talde egingo dira: 1992-93an jaiok, 1990-91n jaiok, 1988-89an jaiok, 1985-87an jaiok eta 1984an edo aurretik jaiotakoak.

Jorratu beharreko literatur generoari dagokionez, lehenengo lau taldeetan ipuinak izan beharko dute eta azken taldean bi atal izango dira: ipuinena eta olerkiena. Lanen luzerari dagokionez, lehenengo hiru taldeetakoek, gehienez, bi orrialdekoa beharko dute izan; laugarren taldekoek bi orrialdetik bostera eta boskarren taldekoek hirutik hamarrera bitartekoak.

Lan bakoitzeko hiru kopia bidali beharko dira, eta idazle bakoitzak sibre handi batean honako datu hauek



Urtero liburu batean batzen dira saritutako lanak.

sartuko ditu: idazlana, egilearen izenik gabe eta goitizenez, eta beste sobre txiki bat, kanpoan egilearen ezizena duena eta barruan orri honen barrenean dagoen "Egilearen datuak" atala beteta.

Lanak "Literatura Lehiaketa" izenburuaz Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzura bidali edo eraman beharko dira maiatzaren 2a baino lehen.

erreseinak



Julen Gabiria
Connemara gure bihotzean
Eleberria

Julen Gabiria idazle galdakaoarren lehen eleberria. Literaturarekin batera bertsoa landu izan du. Zerbait ipuin-lehiaketa irabazi ditu orain arte, literatura erotikoren alorrean. "Connemara gure bihotzean" eleberriak, Igartza saria eskuratu du. Txemak, bere neska laguna, Eider, auto-istripu batean galdu du. Hura ahaztu nahi eta ezinik dabilela, Eiderrek aurreko urtean Irlandara egindako bidaiaren egunkari bat topatuko du Txemak, klabe sekretuz babesturiko disketean.

-Elkarlanean. 240 orr. 2.100 PTA



Juan Carlos Perez
Ikaro
Pop

Kantari mutrikuarrak bakarlari gisa kaleratzen duen disko berri hau, Maskarada antzerki taldeak berari egindako enkargu baten ondorioa da. Maskaradaren "Ikaro" antzerki obrarako musika zein hitzak sortzeko, Fran Iturbe bergararrarekin batera, eta hamar kantu dituen disko hau osatu du. "Insert coin", "Buel-tak eman", eta "Blues" dira diskoko kanta batzuk. Porrotaren aipamenez betetako diskoa dela esan daiteke. Makinaren erabilera oso nabaria da mutrikuarraren azken lan honetan. Martxoaren 23tik aurrera zuzeneko emanaldietan gozatzeko aukera izango dugu.

-Elkarlanean. 2.300 PTA

bergara ezagutzen lehiaketa

Bigarren faserako indarberrituta taldeak

Baditugu dagoeneko lehiaketako bigarren faserari gero diren lau taldeen izenak: Petu-petuan, Misfits, Asmaizu eta Hik Galdeu, hain zuzen ere. Hortaz, Badakitx, Jakintsuak, Azkarrak eta Jotapurtu taldeak fin aritu diren arren, ez dute sailkatzerik izan eta agur esan behar izan diote lehiaketari.

Gaur, arratsaldeko 7.30etan, bigarren faseari ekingo diote. Asmaizu eta Misfits dira, zozketa egin ostean, norgehiagokan arituko diren taldeak. Honek esan nahi du, hemendik aterako dela finalera pasatuko den lehen taldea.

SAILKAPEN OROKORRA:

PETU-PETUAN	322 puntu
MISFITS	278 puntu
ASMAIZU	260 puntu
HIK GALDEU	258 puntu
JAKINTSUAK	215 puntu
BADAKITX	208 puntu
AZKARRAK	189 puntu
JOTAPURTU	144 puntu

ASTE HONETAKO LEHIAKIDEAK:

ASMAIZU eta **MISFITS**

Kartzela zaharrean, gaur, 19:30etan

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txixizotzak
Kazoltxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMIA

Ezker eskuma

1. Eguzkitik babesteko tresna. 2. Sudurretako jarioak. Zeuk. 3. Fruitu-mota. Saila. 4. Karta-jokoa. Uranioa. 5. H:O. Janari ongailua. 6. Gizon izena. Bokala. Suari dario. 7. Bizkaiko herria. Pl., gerra-tresna. 8. Azkenekoa. Ez ahal. Kontsonante bikoitza. 9. Arabiako estatua. Ibai giputza. 10. Ogi, hitz elkarretan. Nukleoari dagokiona.

Goitik behera

1. Emakume. 2. Nahia. Kanpo. 3. Izanak. Interjekzioa. 4. Ohorezko hitz ematea. Zoru gainean eta horizontalean jarri. 5. Errepikatuz, gorotza. Bi pisu bereizten dituen egitura. 6. Erregai-mota. Kontsonante errepikatua. Potasioa. 7. Tona. Estalkiak. Alkoholen bukaeran. 8. Barazki mota. 1. Kiskali. 9. Kulunkatzen dena. 10. Betekada. Euskaraz eta kitto! Ez eme.

Soluzioa

10. Oka. AEK. Ar. 9. Kulunkara. 7. T. Tapak. Ol. 8. Aza. I. Erre. 5. Ka. Solairu. 6. Ikatz. Nn. K. 3. Ukanak. Eri. 4. Zina. Eizan. 1. Emakumezko. 2. Gurara. At. Goitik behera. 9. Katar. Ora. 10. Or. Nuklear. 7. Ea. Tankeak. 8. Z. Ezin. Rr. 5. Ura. Ozpina. 6. Mikel. A. Ke. 3. Aran. Arela. 4. Kanasta. U. 1. Eguzkitako. 2. Mukiak. Zuk. Ezker eskuma.

bonofotoa




Miguel Angel Elkorobereizibar

Zaharren egoitzaren ondoko kapilan dago inskripzio hau. Zein da kapila horren izena?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zein da bidegorrien alde lanean diharduen Arrasateko taldea?
A- Kalapie
B- Lokatza
C- Lurrats
2. Zein izan da aurtengo Bergarako ehiza txapelketako irabazlea?
A- Agustin Aranzabal
B- Hilario Aranzabal
C- Ramon Igartua
3. Zein antzezlanetan dihardu orain Mireia Gabilondok?
A- El florido aguacate
B- Dakota
C- Ez da hain erraza



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Angelita Larrañagarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Angelitari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Umore Ona**
Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela EGUAZTEN EGUERDIRAKO Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Ram
osoa/erdigaingab./gaingab.
litroko brika
89 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Iñigo Gallastegik 28 urte ditu, eta azkenengo hamar urtietan bere familiariaren Gallastegi jostundegixan dihardu lanian. Oso futbolzalia da, Errealeko bazkidia be bada eta Anoetako partidu guztietara joaten da ekipoa animatzera.

Zure lanian, zer da gehixen gustatzen jatsuna?

Dendara etortzen dan jendiarekin harremana edukitzia.

Eta gutxien?

Ordutegixa, gehixegi lotzen zaittu; azkenian, egun guztia hemen pasatzen dot.

Ze arropa klase saltzen dozue?

Lanerako erropia, barruko erropia, eta baita kalekua be.

Zu zeu zela janzten zara?

Ni normal samar janzten naiz: bakeruak, alkondaria, jertsia...

Ze afiziño daukazu?

Irakurtzia, musikia entzutia, futbola, baiña batez be puzzliak egittia gustatzen jat, asko erlajatzen nau.

Egin dozun puzzlerik haundixena?

1.500 piezatakua; hori baiño haundixagoa egitteko leku asko bihar izaten da.

Futbolian, ze ekipotako zalia zara?

Errealekua.

Futbola, ikustia ala jokatzia nahixago?

Ikustia.

Anoetara joaten zara?

Bai, bazkidia naiz eta bi astetik behin joaten naiz Anoetara Errealaren partiduak ikustera.

Zela ikusten dozu Errealaren egoeria?

Oso ondo ez, baiña uste dot azkenian mantenduko dala, ez dala mailaz jaitsiko.

Jokalaririk gustokuenak?

Gomez eta Aranburu. Orain Zuhaitz

Iñigo Gallastegi

Gurrutzaga gaztia be emoten dau gogor hasi dala.

Ze musika mota gustatzen jatsu?

Heavyxa.

Musika talde bat?

Metallica.

Irakurtzia be gustatzen jatsu, orduan.

Irakurri dozun azken liburua?

Roman Fisherren "La gorra o el precio de la vida".

Idazlerik gogokuena?

Stephen King.

Zela definituko ziñuke zeure burua?

Oso lotsatixa naiz.

Asteko egunik onena eta txarrena?

Onena, zapatua, eta txarrena, berriz, martitzena; astelehena baiño gogorragoa egitten jat martitzena.

Urtaro bat aukeratzekotan, zein?

Udia da gehixen gustatzen jatena. Eguraldi onarekin beste animo batekin egoten naiz.

Telebistako programarik gustokuena?

Dokumentalak asko gustatzen jat, bai animalixenak eta baita bestelakuak be.

Egunkarian lehenengo irakurtzen dozun atala?

Ez dot asko irakurtzen egunkarixa, baina normalian kirolen atala bakarrik begiratzten dot.




SUBIJAI

Gazteentzako moda

Berriro ere Irala Iean zure zerbitzura!



Udaberri-udako moda gertu!





Aratusteak, 1983

Joan dira aurtengo karnabalak eta, urtero bezala, izan dira mozorrotzeko ohiturari eutsi diotenak. Goiko argazkian agertzen den koadrilako batzuk ere ikusi ditugu kaleak animatzen. Ez dadila umorea falta, ez horixe! Aste honetako erretratu zaharra orain dela 17 urtekoa da. Zapatuan baino, martitzenean mozorrotzeko ohitura handiagoa zegoen, eta arratsalde zain gauez umore ona izaten zen nagusi. Erretratua ikusi besterik ez dago. Hara hor nortzuk diren bertan agertzen direnak, ezkeretik eskumara:


Zutik: Arantxa Palacios, Mari Tere Ibarzabal, Elias Lete, Itziar Zabaleta, Mari Karmen Larrañaga, Jose Luis Altzerreka, Arantxa Askasibar (erdi tapatuta), Rosarito Garitano, Joxe Arrieta (erdi makurtuta), Juan Mari Agirre, Izaskun Urriategi eta Elisa Ugarte.

Makurtuta: Luis Mari Mujika, Pello Garitano, Kontxi Oregi, Jose Mari Larrañaga "Alaia" eta Luis Mari Beistegi.

*Argazkia: Roman Larrañaga.
Bergarako Udal Agiritegi Fondoa*



*Gozogintzan
aintzindari.*



GAZTELU
BURDINAKI DENDA

Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA


IBARGVREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Kizkur



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

burujabetza ranzko
beste *urrats* bat

abstentzioa

Espainiarrak ez garelako.

Herri bat, Nazioa bat, garelako.

Gure geroa askatasunez erabakitzeke.

Gure etorkizuna demokrazia eta bakean erabakitzeke.

Guztion ahaleginak Lizarra-Garazira biltzeke.

Gure burujabetzaranzko urrats ausartekin.

Instituzio nazionalak eraikitzeke garaia delako.

*Euskal herritar guztiok elkarrekin bozkatu nahi dugu
Euskal Herri osoko hauteskunde askeetan.*

Gure presoak gure artean nahi ditugulako, orain.

**DESOBEDIENTZIA ETA INTSUMISIOAZ ERANTZUTEKO
GARAIA HELDU DELAKO.**

*martxoaren 12an ez bozkatu
martxoaren 12an **abstentzioa***



Garai berrietan ere...

Txukuntasuna



Argitasuna



Erosotasuna



Osotasuna



Lasaitasuna



hemen aurkituko duzu

a eme Interiores • a eme Sukaldeak • centro Hogar Muebles • Sofa leku

GRUPO

**Amuebladora
Mondragonesa**